

ARANTZAZUKO ANDRE MARIAREN BEDERATZIURRENA

2019

Maria, Hitzaren ikasle eta testigu

Arantzazuko Andre Mariaren Bederatziurrena 2019

MEZARAKO TESTOAK

Egun bakoitzeko gaia
Oharpenak
Otoitzak
Prefazioak
Homiliarako argibideak
Irakurgaiak



Maria, Hitzaren ikasle eta testigu

EGUN BAKOITZEKO GAIAK ETA ERROMESAK

Abuztuak 31 Asteartea	**Nazareten hasi zen misterioa** *Erromesak:* Nafarroako Arkupe taldea
Irailak 1 Asteazkena	**Belenen Hitza haragi egin zen** *Erromesak:* Oiartzun
Irailak 2 Osteguna	**Ain Karim-en Jainkoak salto egin zuen** *Erromesak:* Errezil, Bidania, Goiaz, Albiztur

Irailak 3 Ostirala	**Kanan Hitza ardo bihurtu zen** *Erromesak:* Elgeta, Angiozar
Irailak 4 Larunbata	**Mendian Hitza zorion egin zen** *Erromesak:* Irun
Irailak 5 Igandea	**Bidean Hitza bihotz** *Erromesak:* Segura, Zerain, Mutiloa, Idiazabal
Irailak 6 Astelehena	**Golgotan Hitza maitasun bete** *Erromesak:* Aretxabaleta
Irailak 7 Asteartea	**Pazko-baratzean Hitza bizi berri** *Erromesak:* Foru
Irailak 8 Asteazkena	**Mendekosteko Afaltokian Hitza misio** *Erromesak:* Legazpi



Maria, Hitzaren ikasle eta testigu

KONTUAN HARTZEKOAK

• 2010eko Bederatziurrena etorri da. Eskuartean duzun liburuxka honek goizeko Mezarako testuak eskaintzen ditu. Arratsaldeko elizkizunak beste bidea jarraitzen duenez, testuak ere erabat bereziak eta ezberdinak izango dira. Aurten ospakizunetan otoizgai eta hausnargai erabiliko dugun gaia, Jainkoaren Hitzarena izango da, Maria eredutzat hartuz. Horregatik ikurritza: «Maria, Hitzaren ikasle eta testigu».

• Honako testu hauek eskaintzen ditugu liburuxka honetan: Mezako otoitzak. Prefazioa. Irakurgaien aipamena. Monizioak. Egun bakoitzari dagokion gaia. Eta gai honi loturik, homiliarako argibide labur batzuk ere ematen ditugu. Aurreko urteetan bezala, argibide laburrak dira, gaiaren aipamen zehatza egiteko bestetarako gabe, irakurgaien mezua ere gaiari lotuz. Mezako otoitzak eta prefazioa nondik hartuak diren, atzeko orrian esaten dugu.

• Meza-liburutik hartuak diren testuak, noski, itzulpen ofizialean datoz. Aurten gehienak, hala ere, Mariaren Mezak liburutik hartuak dira eta, beraz, itzulpen pribatukoak dira. Esana gera bedi, testu hauek ez dutela euskaraz ofizialtasunik.

Izan bedi guztia Jaunaren eta gure Ama Mariaren gorespenerako!

Arantzazuko Santutegia
Abuztua, 2010



Maria, Hitzaren ikasle eta testigu

Lehenengo eguna
(Abuztuak 31 - asteartea)

NAZARETEN HASI ZEN MISTERIOA

Meza

Maria Birjina, Jaunaren adierazpenean

Irakurgaiak

Is 7, 10-14;	*(Ik. liburuxka honetan, 63 orrialdea)*
Sal 39	*(Ik. liburuxka honetan, 64 orrialdea)*
Lk 1, 26-33	*(Ik. liburuxka honetan, 64 orrialdea)*

Sarrera monizioa

Abuztuaren azken egunera iritsi orduko, gauza jakina da Arantzazuko Andre Mariaren Bederatziurrena hasten dugula. Horretarako bildu gara gaur hemen. Bake eta on guztioi!

Joan den ikasturtean Jainkoaren Hitzaren gaia erabili dugu gure eliz jarduera osoan eta, horrexegatik, bidezkoa eta egokia ikusi dugu Jainkoaren Hitza aipatzea gure otoizgai eta gogoetagai Bederatziurrenean ere. Gai oinarrizkoa baitugu gure kristau-bizitzan.

Mariak badu zer ikusia eta zer erakutsia Jainkoaren Hitzaren inguruan. Bera beti adi prantatu zitzaion Jainkoaren nahiari. Hortik aukeratu dugun ikurrutza: «*Maria Hitzaren ikasle eta testigu*». Egunez egun, berak eramango gaitu Hitzaren eskolara eta han berrituko du gure fedea. Jainkoaren Hitzak Mariarengan osatu duen geografia korrituko dugu bederatzi egun hauetan. Lehenengo geldialdia, guztia hasi zen herrian, Nazareten. Han hasi zen Hitzaren egintza, **han hasi zen Misterioa**.

Ama Mariak bere bihotz osoz eman zion Jaunaren deiari baietza. Berak erakutsiko digu bihotz irekiz eta menpetasunez hurbiltzen Jaunarengana. Has gaitezen kantuz.

Agurra

Aitaren eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean.

Nazareteko Maria beretzat aukeratu zuen Jainkoaren maitasuna, bego zuekin!

Damu otoitza

Senideok: Nazareteko sukaldean Jainkoaren Hitzak bere deia egin zion Mariari. Eta Mariak bere bihotza oso-osorik ireki zion dei hari. Guk askotan bihotza itxi egiten diogu Jainkoaren deiari. Ospakizun honen atarian, itzul gaitezen Jaunarengana, eta zabal ireki diezaiogun geure barrua, berriro ere gutaz erruki dadila eskatuz.

– Jesus Jauna, Maria amatzat aukeratu zenuena. Erruki, Jauna.
– Jesus Jauna, Mariaren sinesmena edertu zenuena. Kristo, erruki.
– Jesus Jauna, Mariaren esanekotasuna jarraibide jartzen diguzuna. Erruki, Jauna.

Otoitza

Egin dezagun otoitz.
Maitasun handiko Jainkoa,
aingeruaren bidez adierazi zenuen bezala,
zure Semea Maria Birjinaren sabelean
gizon egitea nahi izan duzu;
entzun gure eskariak eta egizu
Jainkoaren benetako amatzat aitortzen dugunok
senti dezagula Mariaren babesa.
Zure Seme Jesu Kristo.

Lehen irakurgaia. Oharpena

Akazek ez dio Jainkoari ezaugarririk onartzen. Bere erara egin nahi ditu gauzak. Jainkoak, baina, bere kabuz emango dio ezaugarria, gero ebanjeliokoan ikusiko duguna. Maria izango da Akazek erakutsi ez zuen sinesmena erakutsiko duena.

Is 7, 10-14 *(Ik. liburuxka honetan, 63 orrialdea)*

Aleluia aurretik

Nazareten hasi zen Misterioa. Jainkoak Mariari dei egiten dion unea ikusiko dugu orain. Intzentsua prantatu, Liburua jaso, zutitu eta aleluiaka presta gaitezen dei egiten digun Jaunari harrera egiteko, bihotza zabal irekiz.

Lk 1, 26-33 *(Ik. liburuxka honetan, 64 orrialdea)*

Jainkoherriaren otoitza

Senideok: Jaunak Mariari dei egin zion eta emakume guztien artean bedeinkatu zuen. Jainkoaren bedeinkazioa eskatu behar dugu gizon eta emakume guztientzat. Guretzat eta fededunontzat esanekotasuna eskatuko dugu. Kanta dezagun usterik onenaz:

ENTZUN, JAUNA, GURE ESKARIAK.

- Munduko gizon-emakume guztien alde:
  Jesusengan eman digun salbaziozko bedeinkazioa guztiengana iritsi dadin.

- Beren bizitza osoa Jaunari sagaratu diotenen alde:
  beren bokazioa etengabe berritu eta munduan Jaunaren testigantza ederra eman dezaten.

- Jaunaren berririk ez dutenen alde:
  Jaunaren Hitzak bere gizatasuna osotasunean bizitzera eraman ditzan.

- Gure familia eta sukaldeen alde:
  Jainkoaren Hitza entzun eta lantzeko gune izan daitezen.

- Arantzazuko Amaren Bederatziurrenean aurkitzen garenon alde:
  Mariak bezala, Jaunarekiko esanekotasuna bizi dezagun, gure bihotza eta baietza Jaunari emanez.

Entzun, Jauna, gure eskariak. Zure Hitza esan diguzun ezkero, egizu bihotz handiz onartu dezagula. Arantzazuko Amaren otoitzez eta Jesu Kristo gure Jaun beraren bitartez.

Oparigaien gaineko otoitza

Mariaren sabela ernaldu zuen
Espiritu Santuak
santu egin ditzala, Jauna,
aldare gainean aurkezten dizkizugun opariak.
Jesu Kristo.

Prefazioa

Egoki da, bai, eta zuzen,
nonahi eta beti zuri eskerrak ematea,
Jauna, Aita guztiz santu,
Jaungoiko ahalguztidun betiereko horri,
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Ama Birjinak sinetsi baitzuen aingeruak esana:
Espiritu Santuaren egitez,
Kristo gizon egingo zela gizakiak salbatzeko;
eta bera eraman zuen maitasunez bere errai garbietan.
Horrela bete zuen Jainkoak
Israel herriari egindako promesa
eta uste guztien gainetik bete zuen
gainerako herrien esperantza.

Horregatik,
aingeruek pozez abesten dizute
eta guk ere bat egiten dugu haiekin
zure gorespena apaltasunez kantatzeko:
Santu...

Jaunartze ondorengo otoitza

Jauna, hartu ditugun sakramentuek
eman diezagutela zure errukia,
eta, zure Seme Jesu Kristoren gizakundeaz,
salba gaitzazu Maria zure Amaren
oroipena leialki ospatzen dugunok.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Homilia

Jainkoaren Hitzaren gaiak aukera desberdinak jartzen dizkigu eskura, beraganako kristau-hurbilketa bat egin ahal izateko. Arantzazuko Andre Mariaren Bederatziurrena izanik, Maria dugu gure hurbilketan irudi eta eredu. Eta hori ere, alderdi zehatz batetik ikusita: Jainkoaren Hitzak Mariaren bizitzan markatu duen geografia korrituz.
Lehenengo geldilekua Nazaret dugu. ***Nazareten hasi zen Misterioa.*** *Han aukeratu zuen Jainkoak bere Hitzez Maria, salbaziozko Misterioa munduratzeko. Alde batetik, Jainkoak egiten duen aukera azpimarratuko dugu eta, bestetik, Mariak erakutsi zuen bihotz zabala. Nazareten Mariak hasi zuen ibilbideak barne-lan handia erakusten du, Mendekosteko betetasunera bitartean. Hala ere, Mariak beti jarrera bera erakutsiko du: apaltasuna, Jainkoari adi bizitzea, bere osoa Jainkoari entregatzea, Jainkoari nahi duena egiten uztea... Beti eguneroko bere biziera txiki eta gordean.*

Mariaren misterioa ulertzeko, askotan etorri gara Nazareteko etxe txikira. Han hasi zen dena. Etxe apal haren kolore umila argiz bete zen, Jainkoak Mariari dei egin zionean. Nola? Zergatik? Neskatxa apal haren ametsa gainditzen zuen Jainkoaren deiak. Nazareten dena normala zen, dena harrigarria zen. Jainkoa tartean baitzebilen.

Jainkoaren Hitzaren edertasunera hurbiltzerakoan, Nazaretetik abiatuko gara. Han hasi zen Jainkoaren Hitza bere miraria egiten. Munduaren amets eta asmo guztiak Nazareteko etxe txikira biltzen dira. Jainkoak hitz egin du eta bere asmoa burutzeko zerbitzua eskatzen dio Mariari. Maria Jainkoaren Hitzak harrapatu du eta uste guztien gaineko presentziaren iturri bihurtzen zaio. Jainkoa Mariaren sabelera dator Jesusengan. Garai berria da.

Akazek harrokeriaz zapuztu zuen Jainkoaren eskaintza. Bere indarrez edo giza indarrez fio zen. Ez zion Jainkoari sinetsi nahi izan. Baina Jainkoak, bere kabuz emango dio ezaugarria. Eta ezaugarria Maria izango da, bere sabelean Jainkoaren Semea duela. *(ik. 1. irak.)*.

Akazek ez bezala, Mariak, Nazareteko neskatxak, fede handia azaltzen du. Mariak harridura erakusten du. Ez zaio barruan kabitzen proposatzen zaiona. Galderak egiten ditu. Bere ezintasuna azaltzen du. Eta bere itzalean gozatzen duen Espirituak «baietza» ateratzen dio bihotz-bihotzetik. Jainkoaren Hitzari uzten dio bere guztia, gorputza eta sabela. «Egin bedi niregan». Maria benetan Jainkoaren Hitzaren miraria da! *(Ik. ebanj.)*.

Nazaretek lezio asko ditu: Jainkoaren egintza, aurrena. Zer espero zitekeen Nazaretetik tartean Jainkoa ez balebil? Baina, Jainkoaren Hitzak apaltasun hartan erakusten du bere indar guztia. Jainkoak, bere Hitzaren distiraz, gizakiarekin bat egin nahi du eta Israel herriaren historia osoa burutuko du. Kristauok jakin behar dugu, Jainkoaren obra garela, Maria bezalaxe. Guk geure gauzak egin ditzakegu, baina ezin dezakegu Misterioa egin. Hori Jainkoaren lana da.

Mariaren prestutasun osoa, Hitzarekiko menpetasun librea, bigarren lezioa. Mariak ez du ulertzen, Jainkoarena ez zaio bere eskemetan kabitzen, gainditua sentitzen da. Baina, elkarrizketa irekian, Jainkoaren Espirituak baietza jartzen dio bihotzean. Mariaren «egin bedi» hori, Elizaren historiako zimentarria izango da betiko. Eliza bere menpetasunetik bizi da. Elizak beti irekia eraman behar du bere bihotza; irekia, ez bere ametsen neurrira; irekia, Jainkoaren nahiaren neurrira.

Horra Mariak lehenengo egun honetan uzten dizkigun lezioak. Jainkoaren Hitza ari da gaur ere bere deia egiten, beti Misterioa martxan jartzen, beti menpetasuna eskatzen. Mariaren bidea dugu geure bide. Haren jokabidea geure jokabide!

Maria, Hitzaren ikasle eta testigu

Bigarren eguna
(Irailak 1 - asteazkena)

BELENEN HITZA HARAGI EGIN ZEN

Meza

Santa Maria, Jainkoaren Ama

Irakurgaiak

Za 2, 10-13	*(Ik. liburuxka honetan, 65 orrialdea)*
Sal 112	*(Ik. liburuxka honetan, 65 orrialdea)*
Lk 2, 1-7	*(Ik. liburuxka honetan, 66 orrialdea)*

Sarrera monizioa

Jainkoaren Hitzaren abentura ederra egiteko, Arantzazuko Amaren Bederatziurrenean abiatuak gara. Gaur bigarren eguna dugu.
Jainkoaren Hitzak hasi zuen Misterioa Nazareten, Mariarengan. Eta gaur, Hitzaren eskutik, Belenera goaz, erromes-ibilbidean. Eta Nazareten bederatzi hilabete lehenago hasitako Misterioa, Belenen burutuko da. **Belenen Hitza haragi egin zen.** Fedearen hazkunde ederra da Hitzak proposatzen diguna.
Gu ere Maria bezala aukeratuak izan gara eta Jaunaren eskutik goaz gure giza eta fede-bizitzan. Esanekotasunaren bihotz irekian Jaunak bere Hitza ereiten du, eta atergabe Berri Onaren emaitza sortzen da. Belenek lezio ederrak dauzka guretzat ere. Mariari begira jasoko ditugun lezioak.
Maria Belenera eta Belengo haitzulora eraman zuen Hitzak, gu Eukaristi mahai honetara gakartza. Hemen gertatuko zaigu gaur Belen. Has gaitezen kantuz eta alabantzaz.

Agurra

Aitaren eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean.

Belenen gizon egin den Jesus Jauna izan bedi zuekin!

Damu otoitza

Senideok: Mariak bere fedea atergabe berritu eta zabaldu behar izan zuen, Hitzari bere baietza emateko. Belenen ez zuen une erraza bizi izan. Denek baztertua, bere fedearen haitzulora bildu behar izan zuen, han Jainkoarekin topo egiteko. Ospakizuna hastean, eska dezagun errukia gure ahuldadearentzat. Utzi dezagun gure bekatua Jaunaren esku errukitsuetan.

- Jesus Jauna, gure ezinean gizon egiten zarena. Erruki, Jauna.
- Jesus Jauna, Aitarengandik Berri On pozgarria ekarri diguzuna. Kristo, erruki.
- Jesus Jauna, Maria zeure ama eta gure ama egin duzuna. Erruki, Jauna.

Otoitza

Egin dezagun otoitz.
Gure Jainko ona, salbamen-hitza eta bizi-ogia den
zure Semea bidali zenuen zerutik
Birjina santuaren sabelera;
egizu hark bezala har dezagula Kristo,
beronen hitzak bihotzean gordez
eta beronen misterioak fedez ospatuz.
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean.

Lehen irakurgaia. Oharpena

Zakarias profetak Sion hiriari kantu egiten dio, Jauna beregan duelako. Gorespen-hitzok gaur Belenera biltzen dira, han gertatu baita Jainkoaren Hitzaren miraria, Mariarengan.

Za 2, 10-13 *(Ik. liburuxka honetan, 65 orrialdea)*

Aleluia aurretik

Gertaera zibil baten eskutik, Jainkoaren egintza handia gertatuko da Belengo hirian. Mariak Jesus haur egingo du. Zutitu eta entzun dezagun arretaz Ebanjelioko Hitza.

Lk 2, 1-7 *(Ik. liburuxka honetan, 66 orrialdea)*

Jainko-herriaren otoitza

Jainkoaren Hitzak Belengo pobrezia jainkozko dohainez bedeinkatu du. Egin diezaiogun otoitz Jaunari, gure arteko eta mundu guztiko pobreak bedeinka ditzala eskatuz. Eska dezagun duintasuna denontzat. Usterik onenaz kanta dezagun:

ENTZUN, ARREN, JAUNA.

- Munduko gizon-emakume guztien alde:
  Belenen jaio den Jainko Semeak bakearen berri onez poztu ditzan.

- Etxerik eta duintasunez bizitzeko behar dutenik ez daukatenen alde:
  mundu zuzenago baten esperientzia izan dezaten.

- Etorkinen alde, beren herria utzita gure artean ezinez bizi direnen alde:
  gure laguntza eta solidaritatez, Jainkoaren berri pozgarria jaso dezaten.

- Gaixorik, ezinduta, bakardadean, era batera edo bestera sufritzen ari diren guztien alde:
  Belengo artzainek jaso zuten Berri On bera jaso, eta sentiduz bizi daitezen.

- Arantzazuko Amaren Bederatziurrena egiten ari garen guztion alde:
  gure ahaleginez gaitzaren haitzulo guztiak bedeinkazioz bete eta ondu ditzagun.

Jaso itzazu, Jauna, gure eskariak. Eta zure Semea haragizko Hitz egin zaigun ezkero, jaso dezagula gure pobrezian zure Berri Ona. Arantzazuko Amaren otoitzez eta Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Oparigaien gaineko otoitza

Birjina dohatsuaren oroigarria eginez
eskaintzen dizkizugun zure herriaren dohain hauek
atsegin eman diezazutela, Jauna;
hark bere birjintasunaz atsegin eman zizun bezala
eta bere apaltasunaz zure Semea sortu zuen bezala.
Zurekin eta Espiritu Santuarekin.

Prefazioa

Egoki da, bai, eta zuzen
nonnahi eta beti Zuri eskerrak ematea,
Jauna, Aita guztiz santu,
Jaungoiko ahalguztidun betiereko horri.

Misterio harrigarri baten bidez
eta zure asmo ederraren arabera,
Birjina dohatsuak zure Seme bakarra erne zuen
eta bere erraietan eraman zuen zeru goiko Jauna.
Gizonik ezagutu ez zuena ama bihurtu zen,
eta haurra izan ondoren ere birjina aitortzen dugu.
Bai, bi dohain eder gozatu zituen:
birjina izanik ernetzeaz harritu zen
eta Eroslea sortzeaz poztu.

Horregatik, aingeru-taldeekin batean,
goresten zaitugu,
pozez beterik kantatzen dugula:
Santu...

Jaunartze ondorengo otoitza

Eukaristiaz janariturik
eskatzen dizugu, Jauna:
aitor dezagula hitzez eta egitez
Ama Birjinagandik jaio den zure Semea,
sakramentu honetan hartu duguna bera.
Jainko eta errege bizi baita.

Homilia

(Jainkoaren Hitzak Mariarengan eratu duen geografian, Nazaretetik 150ren bat kilometrora dagoen Belenera goaz gaur. Nazareten hasi zen Misterioak Belenen hartzen du gorputz. Nazaretetik Belenerako bidea beste edozein herritarrek bezala egiten dute Jose eta Mariak. Eta han, apaltasun pobrean, Jesus jaioko da. Ezin diote etxe bat eskaini, ezta sehaska baten beroa ere. Gerora bizi beharko zuen bakardadean jaioko da Jesus. Eta Jesus horrengan Jainkoak hitza esan ez ezik, ***Jainkoa Hitz egiten da, Hitza haragi egiten da.*** *Lezio asko dakartza berekin Belengo esperientziak. Mariaren harrera isilak asko hitz egiten du).*

Bigarren geldiunea Belenen dugu. Nazareten esan zaiona gertatu egiten zaio Mariari. Jainkoak hitz egin zion eta orain Jainkoa Hitz egiten zaio. Maria Hitzaren erromes ikusten dugu apaltasunaren eta pobreziaren ibilbide isilean. Ez dute ezer, ezta haurrari harrera egiteko etxe edo sehaska bat ere.

Jainkoa Hitz jaiotzen da. Hitza haragi egiten da. Eta Belendik argi berria pizten da mundu guztirako. Hantxe, Belengo haitzuloan, uztartzen dira Jainkoaren aintza eta gizon-emakumeon bakea.

Lukasen ebanjelioak kontaketa xume eta apala egiten du, distira eta gehiegikeriarik gabea, kontaketa biluzia. Gertaera zibil baten anparoan (erroldatzea) gertatzen da gertatzen dena. Jainkoa, azken batean giza gertaerei eta esperientziei lotua ikusten dugu. Jainkoa Hitz harrigarri bihurtzeko ez dabil une berezi eta harrigarrien bila. Kontrara, pobrezia bilatzen du. Mariak eta Josek ez dute aurkitzen beren semearentzako leku duinik. Ostatuan ere ez dago lekurik. Haitzulo batean egiten da Jainkoa Hitz haragi *(Ik. eban.)*.

Handikiak ez dira jabetzen. Mendiko isilean artzain pobreek sumatzen dute Hitzaren distira berria. Urrutiko bilatzaileek aurkituko dute altxorra. Eta pobreen ahots eskertuak zabalduko du gertaeraren berri mundu guztira *(Ik. 1. irak.)*.

Belengo lezioak? Jainkoak pobrezian jokatzen du, pobreak ohartzen dira, Hitzak bakea dakar, Jainkoak kantua sortzen du guregan.

Gure gaurko Elizak ere hemendik aztertu beharko ditu bere bideak eta jokaerak. Aspaldian ebanjelizazio berriaren kezkaz bizi gara. Nola zabaldu Berri Ona geure gizarte honetan? Borroka mingarrian gabiltza nola eutsiko daukagunari, nola babestuko gure doktrina han eta hemen, nola legeen sorrera eskuan edukiko, nola kristau-ideologia bizirik mantenduko...

Jainkoak beti bide pobreak aukeratu izan ditu: Maria, Nazaret, Belen, haitzuloa... Elizak pobrezia estimatzen ikasi beharko du, era guztietako pobrezia. Bitarteko pobreen balioaz jabetu beharko du, nahi ta ez. Bitarteko pobreen ondoan, Mariaren isiltasun ustetsua. Artzainen begirada garbia, Magoen bilaketa-sena... Gure ostatu bertutetsuetan ez dago lekurik Jaunarentzat, beraren Hitzarentzat. Gure haragi pobrean entzun, ikusi eta ukitu dugu Hitza.

Mariak eskutik garamatza Belengo jarreretara. Mariak erakutsiko digu apaltasun pobrea. Mariak erakutsiko dio gure Elizari, dena galdu denean uste on izaten.



Maria, Hitzaren ikasle eta testigu

Hirugarren eguna
(Irailak 2 - osteguna)

AIN-KARIM-EN JAINKOAK SALTO EGIN ZUEN

Meza

Maria Birjina dohatsuaren bisitaldia

Irakurgaiak

So 3, 14-18	*(Ik. liburuxka honetan, 66 orrialdea)*
Is 12	*(Ik. liburuxka honetan, 67 orrialdea)*
Lk 1, 39-45	*(Ik. liburuxka honetan, 67 orrialdea)*

Sarrerako monizioa

Jainkoaren Hitza arnasbide dugula gabiltza Mariaren bideetan. Nazaretetik Belenerako bidea egin dugu lehenengo bi egunetan. Misterio handiaren testigu izan gara, Jainkoa Hitz egin zaigu, Hitza haragi egin zaigu.
Bien tartean, Nazaret eta Belenen tartean, izan zen beste leku bat adierazgarria, gaur bisitatu behar duguna, Ain-Karim, Isabelen herria. Hara joan zen Maria **Jainkoaren saltoa** sabelean zuela eta han saltarazi zuen munduaren bihotza bere bisitaz. Jainkoak bere bihotzaren poz-saltoa erakusten digu Mariaren bidez. Eta Jainkoak saltoa gertarazi zuen Isabelen sabelean, Joan Bataiatzailearengan.
Eukaristia honetan Jainkoak bisitatzen gaitu Mariaren bidez. Jainkoaren ilusio-saltoa bizi nahi dugu, poz ederrean. Jainkoaren bisitaren poza ospatzera gatoz Eukaristian. Maria eta Isabek bezala bihotz-zabal pranta gaitezen.
Ekin diezaiogun sarrerako kantuari.

Agurra

Aitaren eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean.

Bere askatasunez bisitatzen gaituen Jauna bego zuekin!

Damu otoitza

Senideok: Ospakizunaren hasieran, Jaunaren bisita jasotzeko prestatu behar dugu. Bisita handietarako dotore prestatzen bagara, nola ez Jaunari harrera egiteko! Gu dotoretzen gaituen gauza bakarra Jaunaren errukia da. Utzi dezagun gure bizitza Jaunaren eskuetan. Presta ditzagun gure bihotzak, Jaunarengana jo eta errukia eskatuz.

– Jesus Jauna, Aitaren onez bisitatzen gaituzuna. Erruki, Jauna.
– Jesus Jauna, zeure bisitaz bedeinkatu eta pozten gaituzuna. Kristo, erruki.
– Jesus Jauna, Ama Mariaren bidez, esperantza eta alaitasuna pizten dizkiguzuna. Erruki, Jauna.

Otoitza

Egin dezagun otoitz.
Gizon-emakumeon Salbatzaile zaren Jainko Jauna,
Itun Berriko kutxa den Maria Birjina dohatsuaren bidez
eraman zenituen Isabelen etxera salbamena eta poza;
egin gaitzazu Espirituari menpeko
anai-arrebei Kristo eraman
eta zure handitasuna iragar diezaiegun
gure gorespenez eta gure bizieraren santutasunaz.
Zure Seme Jesu Kristo.

Lehen irakurgaia. Oharpena

Bihotz-eroria dagoen Sion hiriari, Jaunak bere bisitaz poza eskaintzen dio. Bizi dituen une zailetan, Jauna ondoan dauka. Tristuran jaia emango dio Jaunak. Gure garaietarako balio du mezu eder honek. Entzun dezagun.

So 3, 14-18 *(Ik. liburuxka honetan, 66 orrialdea)*

Alleluia aurretik

Maria, Jaunaren mezua jaso eta berehala, Isabelenganako bidean jartzen da, hari laguntzeko. Topo egiten dutenean, pozaren eta salbazioaren jauzi handia gertatzen da. Zutik, jar gaitezen prest Jesusen Berri Ona entzuteko!

Lk 1, 39-45 *(Ik. liburuxka honetan, 67 orrialdea)*

Jainko-herriaren otoitza

Senideok: Jaunarengana jo dezagun uste onez. Eska dezagun Jaunaren bisita askatzailea gizon-emakume guztientzat; batez ere, ezinaren katez lotuta daudenentzat. Kanta (esan) dezagun:

GURE OTOITZA ENTZUN, JAUNA.

- Eliztarren alde:
  garaiotako gizon eta emakumeentzat Jaunaren bisita pozgarri izan daitezen.

- Irtenbiderik gabe aurkitzen diren guztien alde, batez ere gazteen alde:
  gure bidez, esperantzara altxatuko dituen Jaunaren bisita izan dezaten.

- Sufritzen ari diren guztien alde, gure gaixoen alde:
  Jaunak baretasunez eta barne-indarrez bisita ditzan, kontsolamendua sentiaraziz.

- Inolako maitasunik sentitzen ez dutenen alde; beren autoestima erabat galduta daukatenen alde:
  duintasunera jasoko dituen laguntza izan dezaten, barrutik pozteko.

- Hemen, Amaren inguruan elkartuta gaudenon alde, gure senide eta adiskideen alde:
  bata bestearentzat Jaunaren bisita izan gaitezen, elkar onartuz eta barkatuz.

Aita ona, zeure Seemarengan bisitatu gaituzunez gero, geldi zaitez gurekin, esperantza eta poza ez ditzagun gal. Arantzazuko Amaren otoitzez eta Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Oparigaien gaineko otoitza

Beragandik Jesu Kristo zure Semea,
salbamen-fruitua, sor zedin,
Maria Birjina sorkari berri egin zuen
Espiritu Santuak berak, Jauna,
santu egin ditzala orain dohain hauek.
Jesu Kristo.

Prefazioa

Egoki da, bai, eta zuzen
nonahi eta beti Zuri eskerrak ematea,
Jauna, Aita guztiz santu,
Jaungoiko ahalguztidun betiereko horri.

Isabelek, Espiritu Santuak argituta
esan zituen profeta-hitzen bidez,
Maria Birjina santuaren bikaintasuna
adierazi baitiguzu.
Izan ere, Jaunaren aurrelari izango zenaren amak,
zorionekoa deitu du Maria,
agindutako salbamenean sinesteagatik,
eta Jaunaren Ama aitortu
bere zerbitzu-jarreragatik.

Horregatik,
Jainkoaren Amaren kantikarekin pozez elkarturik,
zure handitasuna aitortzen dugu
aingeru eta santuekin kantatuz:
Santu...

Jaunartze ondorengo otoitza

Zure Eliza, Jauna, goi-sakramentuez indarturik
eta Espiritu Santuaz beterik,
atera dadila pozik herrien bidera,
horiek, salbamen-hitza entzutean,
poztu daitezen bete den askatasunagatik,
eta Kristo aitor dezaten bere Salbatzaile bezala.
Errege bizi baita.

Homilia

(Mariak, Jaunaren gizakundearen berri izan zuenean eta bere baietza Jauanri eman zionean, Isabel haurdun zegoela jakin zuen. Eta presaka abiatu zen Isabel bere lehengusuarengana, Ain-Karim herrixkara. Kilometro askoko bidaia izan zen, herri txiki hau Jerusalemdik gertu baitago. Mariaren zerbitzu-nahiak sekulako poza eragiten du Isabelen etxean. Joanek salto egiten du Isabelen sabelean. Salto hori, hala ere, ***Jainkoak egiten duen salbaziozko salto*** *bezala ikusiko dugu gaur. Jainkoaren Hitzak poza sortzen du eta pozez bisitatzen gaitu beti. Hona homiliarako ideia batzuk:).*

Hirugarren geldialdiak Ain Karimgo txoko gozora garamatza. Han dago Isabel haurdun. Maria, bere lehengusua, datorkio bisitan. Eta Mariaren sabelean datorren Hitzak pozezko saltoa eragiten du Isabelen sabelean. Itun Zaharraren buruan Itun Berriaren pozezko eskaintza sumatzen da.

Mariaren eta Isabelen topaketak Jainkoaren Hitzaren eragin pozgarria erakusten du. Jainkoaren Hitzak duen ebanjelizazio-indarra ederki azaltzen da. Ebanjelizatzea Jainkoaren Hitzaren barne-poza adieraztea da, berari Berri Onaren lana egiten utziz. Mariak ez du hitz asko behar; barruan daraman jainkozko dohainari bere eragina erakusten utzi besterik ez.

Mariaren eta Isabelen arteko elkarrizketak harridura eta bedeinkazioa erakusten ditu. Emakume biak Jainkoaren egintza sentitzen dira. Zerbait handia ari duela Jainkoaren Hitzak, hori ikusten dute. Biak ala biak gaindituak sentitzen dira. Jainkoaren Hitzaren egintza sentitzen dira. Eta Jainkoa goresten dute beren indar guztiaz *(ik. ebanj.)*.

Gaurko gaiari ezarri diogun titulua (**Ain-Karimen Jainkoak salto egiten du**) lehenengo irakurgaitik ulertzen da. «Pozez jauzika eta kantari dago zuregatik» esaten du profetak. Eta Jainkoaren jauzi horren ondorioa da Elizaren sabelean guk ere jotzen dugun jauzia edo saltoa. Beldurrak eta tristurak ez dute lekurik gure bizitzan eta gure lanean *(ik. 1. irak.)*.

Ain Karim-ek pozezko ebanjelizazioa erakusten digu: poza gizon-emakumeei eramatea dugu eginkizun eta enkargu. Jainkoaren bisita gure bidez gertatzen da. Hori horrela baldin bada, horren argitan aztertu eta kontsideratu beharko ditugu gure ebanjelizazio-lan eta -planak. Nola egin ebanjelizazio berria gaurko gizartean? Nola azaldu adierazgarri eta esanguratsu Jainkoaren Hitza gure inguru utzian?

Mariak Ain-Karim-era egiten duen ibilaldiak erakusten du ebanjelizazio berriaren moldea. Ez da asko hitz egitea. Ez da ideien kontua. Ez da urduri saiatzea. Gure fedearen sabelean Jainkoaren Hitz haragi egina eramatea da. Jainkoaren Hitz gizon eginak pozaren saltoa sortzen du Jainkoaren bihotzean eta baita gurean ere. Jainkoak guregana egin duen pozezko jauzian mundu osoak salto egin du.

Eta, besterik gabe, ebanjelizazioa gertatzen da. Jainkoaren Hitzaren isiltasunak ez du hitzik behar poza esateko. Jainkoaren Hitzaren presentziak ez du nabarmenkeriarik behar, bera sentitzeko. Harrera ona, entzute isila, bide berean bidelagun egitea, poza bizitzea, epairik ez egitea, presente eta hurbileko azaltzea (Maria Isabeli bezala), aski da Jainkoak bere lana egin dezan.

Mariak eramango gaitu ebanjelizazio berriaren bidean, bizitzea tokatu zaigun gizarte ez-axolatu honetan. Ain-Karim izango dugu atergabe begietan.



Maria, Hitzaren ikasle eta testigu

Laugarren eguna
(Irailak 3 - ostirala)

KANAN HITZA ARDO EGIN ZEN

Meza

Kanako Maria Birjina

Irakurgaiak

Apk 21, 1-5a	*(Ik. liburuxka honetan, 68 orrialdea)*
Jdt 13	*(Ik. liburuxka honetan, 68 orrialdea)*
Jn 2, 1-11	*(Ik. liburuxka honetan, 68 orrialdea)*

Hasierako monizioa

Bederatziurreneko laugarren egunak, Nazaretetik gertu dagoen Kanara darama Maria. Ezteiak ospatzera doa. Eta ezteien irudi adierazgarrian, Jainkoaren Hitzak pozaren irribarrea sortzeko gaitasuna erakusten digu.

Han zegoen Maria, gonbidatua. Beharra sortu zen arte, isilik. Baina, beste behin, bere fedez eta uste onez, Jainkoaren Hitzari bere ezaugarria egiten utziko dio. Eta Mariaren bidez, **Jainkoaren Hitza ardo hobe bihurtuko da**. Eukaristian ere, ezteiak ospatzen ditugu. Hemen Jainkoak gizakiarekin egin duen elkartasuna ospatzen eta berritzen dugu.

Hasieratik jar gaitezen fedezko sintonian. Gure izatea Jainkoak dohain berriz bedeinkatuko du. Kanako ezteietan bezala, hemen ere ardo onena emango zaigu, Jesus berpiztuaren maitasun-ardoa.

Maria lagun dugula, fedean bat egin eta ekin diezaiogun ospakizunari sutsuki kantatuz.

Agurra

Aitaren eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean.

Gure bizitza maitasunaren ardo onez pozten duen Jesus Jauna, bego zuekin.

Damu otoitza

Senideok: Eukaristiara gatozenean, Jainkoak bere ezteimahaira gonbidatuta gatoz. Hemen Jainkoa ematen zaigu maitasunezko ardo egina. Baina, badakigu zenbat kostatzen zaigun geure asmoak alde batera utzi eta Jaunaren maitasun hori onartzea. Horregatik, errukia behar dugu, berriro ere maitasunera itzultzeko. Eska dezagun bihotz berria.

– Jesus Jauna, gauza guztiak berri egiten dituzuna. Erruki, Jauna.
– Jesus Jauna, Aitaren maitasun betea eman diguzuna. Kristo, erruki.
– Jesus Jauna, gure bizitzaren ardo berria zaituguna. Erruki, Jauna.

Otoitza

Egin dezagun otoitz.
Jauna, Aita Santua, zuk nahi izan duzu,
zeure erabaki harrigarriz,
Maria Birjina dohatsua tarteko izatea
gure salbamenaren misterioetan,
emaguzu, Kristoren Amaren eskariak adituz,
egin dezagula zure Semeak
Ebanjelioan agindu diguna.
Zure Seme Jesu Kristo.

Lehen irakurg. Oharpena

Apokalipsi liburuak mundu berri baten eskaintza egiten digu. Jainkoak gure artean eraiki du bere bizilekua eta haren ondoan dena berria da. Jaunaren dohainak esperantza sortzen digu.

Apk 21, 1-5a *(Ik. liburuxka honetan, 68 orrialdea)*

Alleluia aurretik

Kanako ezteietan Jesusek mundu berriari dagokion ardoa eskaintzen digu. Jesus berpiztua dugu argizko eztei-dohaina. Zutitu eta bihotz zabalez entzun ditzagun Ebanjelioko hitzok!

Jn 2, 1-11 *(Ik. liburuxka honetan, 68 orrialdea)*

Jainko-herriaren otoitza

Senideok: Kanako ezteietan bezala, Maria otoitz-lagun dugu une honetan. Mariarekin bat eginda eska dezagun erreinuko ardo berria gizon-emakume guztientzat. Eska dezagun Berri Onaren poza mundu guztiarentzat. Kanta dezagun:

ENTZUN, JAUNA, ESKATZEN DIZUGU.

- Munduan sakabanaturik bizi diren fededunen alde: beren testigantzaz eta hitzez, Jainkoaren mundu berria adieraz dezaten.

- Miseriaren tristurak zauritzen dituen herrien alde:
  jakin dezagun haientzako ardo berria sortzen, beraien duintasuna aitortu eta landuz.

- Gure kaleetako baztertuenen alde; sidadun, etorkin, eskale, alkoholaren edo drogaren menpe daudenen alde:
  bizitzeko poza izateko aukera eta bidea erakuts diezaiegun gure hurbiltasunez.

- Sufritzen ari diren guztien alde; beren eguneroko pisua gaixoaldia dutenen alde:
  haien ur geza osasunerako ardo gozo bihur dakien.

- Amaren Bederatziurrenean hemen bildu garenon alde:
  Jaunak gure sinesmenari egin dion erregalua ezagututa, pozik bizi gaitezen eta poza zabal dezagun inguruan.

Jauna, zuk ematen diguzu bizitzeko poza eta erreinua lantzeko indarra. Egizu gure eguneroko biziera txikia zuretzako gorespen izan dadila. Arantzazuko Amaren otoitzez eta Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Oparigaien gaineko otoitza

Pozik aurkezten dizkizugun dohain hauek, Jauna,
egin itzazu zure Seme Jesu Kristoren Gorputz eta Odol,
bere Ama Mariaren erreguz, ura ardo bihurtu zuen bezala,
ezaugarri horren bidez
bere nekaldi aintzatsuaren ordua aurrez adieraziz.
Jesu Kristo.

Prefazioa

Egoki da, bai, zuri eskerrak ematea
eta zuzen zu gorestea, Aita Santua,
Maria Birjina aintzatsuaren ospakizun honetan.

Berak, ezkonberriekiko arduraz,
bere Semeari erregutu zion
eta zerbitzariei agindu hark esana egiteko:
ur-ontziak gorritu ziren,
gonbidatuak poztu
eta eztei-jatordu hark irudikatu zuen
Kristok Elizari egunero eskaintzen diona.

Ezaugarri zoragarri honek
mesianitar garaia adierazi zuen,
Espiritu Santuaren dohaina agindu zuen
eta aurrez seinalatu Kristo nekaldi gorriaz jantzi zen ordua,
Eliza bere emaztearen alde gurutzean bizia emanez.

Horregatik, aingeru eta goi-aingeruek
gurtzen zaituzte beti, zure aurrean pozik.
Utzi iguzu haiekin bat egin dezagula,
zure goespena kantatzeko:
Santu, Santu, Santua..

Jaunartze ondorengo otoitza

Zure Semearen gorputz-odolez janariturik,
eskatzen dizugu, Jauna:
Maria Birjinaren jokabidea jarraituz,
Kristorekin bat egin dezagula fedez
eta, Elizaren beharrak partekatuz,
presta dezagula Erreinuaren etorrera, gogoak bat eginez.
Jesu Kristo.

Homilia

(Gaur Nazaretetik Kanara joanda ikusten dugu Maria. Jainkoaren Hitzak Mariarengan eraiki duen geografian, eztei-festa ospatzea dagokigu. Gertaera ezaguna da: ezkonberriak festan, ardoa ahitu zaie, eta Mariak Jesusengana jotzen du. Eta Jesusek, bere Pazkoa aurreratuz, erreinuko ardo berri eta hobea eskaintzen du. ***Jainkoaren Hitza ardo egin zen Kanan****. Gure bizitzan ere askotan ahitzen zaigu ardoa, poza, bizi-sentidua. Nondik lortu? Jainkoaren Hitzak bihurtzen du gure eguneroko ura ardo berri. Jesusek erregalatzen digu, bere bidean, Erreinuko ardo hobea. Hona homiliarako ideia batzuk).*

Pozaren Ebanjelioari gagozkiolarik, Galileako Kana ere ez da ahaztekoa. Han dago Maria, ezteiak ospatzen. Ezteiak, gure sinesmenari erregalatu zaion Erreinuaren irudi ditugu. Festan, baina beharrari erne dago Maria. Behartsuei gertuko. Inor asko ez zen konturatuko, baina Maria bai: ezkonberriak ardorik gabe geratu dira. Guri sarri gertatzen zaiguna. Poza galtzen dugu. Pertsonalki ez ezik elkartean ere pozik gabe gabiltza aspaldian. Erreinuaren ilusioa eta gogoa galduta gabiltza, neurri handi batean.

Mariak ikusi eta Jesusengana jotzen du. Berak badaki zer ari den egiten. Jesusek, bere ordua Pazkoan izango dela adierazi, baina Pazko-garaia aurreratu egiten du. Urez beteriko ontzi handiak ardo berriaren dohain bihurtzen ditu. Gure ardo onenak baino hobea da Erreinuko ardoa, Hitzaren ardoa *(ik. ebanj.)*.

Jainkoaren Hitzak maitasunaren ezteiak gertarazi ditu gure mundu honetan. Eta ezteietan ardo berria eskaintzen digu gizon-emakumeoi. Maria da, ezkonberri haientzat bezala, ardo berrirako deia eta bidea. Jeusek «esandakoa» egitea eskatzen zaigu, Jainkoaren Hitzari esaneko izatea. Hortik bakarrik letorke Erreinuaren dohaina. Mariak Jesusi begira jartzen gaitu. «Egin berak esandakoa». Eta Jainkoaren Hitza pozezko Berri On bihurtzen da, ur hutsetan ezinez zeudenentzat. Jainkoak gure ur zozoa ardo bizi eta bizigarri egiten du.

Zer du, baina, ardo beriak? Erreinu eta presentzia berriaren ardoa da. Hitzaren Erreinuko ardoa. Zeru berria eta lur berria gertarazten dituen ardoa da. Jainkoaren presentzia bizigarria erregalatzen digun ardoa. Dolu, negar eta nekeak arintzen dituen ardoa. Mundu berri baten argitan aurkitzen garela adierazten duen ardoa *(ik. 1. irak.)*.

Mariak erakusten digu ibilbidea nondik eta nola burutu.

Lezioak? Kanak gizon-emakumeon ametsa erakusten du, alde batetik. Pozik bizitzeko bokazioa daukagu eta ezin dugu pozik gabe etsi. Ezteien irdiak erakusten duen maitasuna behar dugu bizitzeko eta maitasuna ezin dugu geurez sortu.

Gure poz-beharraren aurrean, Jainkoaren ebanjeliozko dohaina ere erakusten digu Kanak. Ezteietara, eztei berrietara, deituak izan gara. Jainkoak atergabe berritzen digu gure poz-bokazioa. Jainkoak atergabe ikusi nahi gaitu pozaren erreinuan. Poza eman zaigu!

Orain Eukaristia ospatzen jarraituko dugu. Maria ere gure mahaian dago. Berak badaki zer behar dugun eta zer falta dugun. Berak eskatuko dio Jesusi Erreinuko ardo berritzailea. Mariaren eskutik izan dezagun uste on eta ospa dezagun maitasunaren eztei berria!



Maria, Hitzaren ikasle eta testigu

Bosgarren eguna
(Irailak 4 - larunbata)

MENDIAN HITZA ZORION EGIN ZEN

Meza

Birjina Maria, gure pozaren eragilea

Irakurgaiak

Erm 8, 28-30	*(Ik. liburuxka honetan, 69 orrialdea)*
Sal 44	*(Ik. liburuxka honetan, 70 orrialdea)*
Mt 5, 1-12	*(Ik. liburuxka honetan, 70 orrialdea)*

Sarrerako monizioa

Bederatziurreneko bosgarren egunak ere Mariaren ingurura biltzen gaitu, Jainkoaren Hitzaren egintza askatzaileaz jabetzeko. Mariak geografia berezi batean garamatza. Nazaret, Belen, Ain-KArim eta Kana bisitatu ditugu gaur arte.

Gaur beste toki batera goaz, Zoriontasunen Mendira. Mendi hartan Jesusen mezua aditzen irudikatzen dugu gure Ama Maria. Jesusen segizioa laburbiltzen duen Mendiko Hitzaldian, era batera edo bestera, han behar zuen jarraitzaile zintzoenak, Mariak. Eta han, **mendian, Hitza zorion egin zen**. Zorionaren bidea markatzen digu Jesusek. Jainkoaren Hitzak zorionaren iturrietara garamatza. Gu ere zorion-beharrean gara, ezta? Hainbeste eratako erasoa nozitzen du gure bizitzak! Mariak eramango gaitu zorionaren mendira.

Besterik gabe, zutik jarri eta, Arantzazuko Amaren babesean, ekin diezaiogun ospakizunari!

Apaizaren agurra

Aitaren eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean.

Zorionaren eskaintza egiten digun Jesus Jauna, bego zuekin!

Damu otoitza

Senideok: denok zoriontsu izan nahi dugu, hala esaten dugu behintzat. Baina ez dugu zorionaren bidea asmatzen. Gauza askotan, esperientzia desberdinetan, beti zorion-beharrak garamatza batetik bestera. Jesusek erakusten digu zorionaren bidea. Ospakizunaren hasieran, gure bide galduen barkazioa eskatu behar dugu, gure uste ona Jaunaren errukian jarriz.

- Jesus Jauna, dena gure onerako egiten duzun zorion-iturria. Erruki, Jauna.
- Jesus Jauna, zeure segizioan zoriontsu egiten gaituzuna. Kristo, erruki.
- Jesus Jauna, Mariaren ezereza zoriontasun handiz aberastu zenuena. Erruki, Jauna.

Otoitza

Egin dezagun otoitz.
Gure Jainkoa, zure Semearen gizon egiteaz,
pozez bete duzu mundua;
emaguzu,
zure Ama, gure pozaren eragilea, goresten dugunoi,
beti zure aginduen bidean irautea,
gure bihotzek sendo iraun dezaten benetako pozean.
Zure Seme Jesu Kristo.

Lehen irakurgaia. Oharpena

Jainkoak beretzat aukeratu gaitu betidanik. Maitasun-aukera gara eta Jesusen irudiko izatea dugu bokazio. Eta, aukera horren eskutik, dena gure onerako egiten du gure Jainkoak.

Erm 8, 28-30 *(Ik. liburuxka honetan, 69 orrialdea)*

Alleluia aurretik

Krsitau-bizitzaren oinarria den Hitza entzutera goaz. Zoriontasunen Mendian aurkitzen gara. Jainkoaren Hitzak zoriona aldarrikatzen du. Maitasunezko Berri On honi dagokion festa egin dezagun: Ebanjelio-liburua jaso, intzentsuz lurrindu eta aleluiaka jasoko dugu Hitza!

Mt 5, 1-12 *(Ik. liburuxka honetan, 70 orrialdea)*

Jainko-herriaren otoitza

Senideok: Jesusek zoriona hots egin digu bere maitasunaren menditik. Zorion hori eskatu behar dugu Jesusen jarraitzaile guztientzat eta gizon-emakume guztientzat. Kanta (esan) dezagun:

ENTZUN, ARREN, JAUNA.

- Eliztarren alde; besteen zoriona zerbitzatzen saiatzen direnen alde; Jesusen jarraitzaileen alde... *(Isilunea)*

- Zorionik gabe bizi diren guztien alde; gerran bizi diren herrien alde; gure herriaren alde; norabiderik gabe bizi direnen alde... *(Isilunea)*

- Gaixo, ezindurik, kartzelan, lanik gabe, beldurrez, bakardadean sufritzen duten guztien alde; barkatzen asmatzen ez dutenen alde... *(Isilunea)*

- Etenaren zauria bizi duten familien alde eta tratu txarren samina sufritzen duten emakumeen alde; etorkizun iluna duten haurren alde... *(Isilunea)*

- Hemen, Amaren inguruan elkartuta gauden familia honen alde... [irratiz gurekin direnen alde...] gure senide eta adiskideen alde... *(Isilunea)*

Eskerrak, Aita, zorionaren Hitza esan diguzulako eta hartarako bidea erakutsi diguzulako. Egin gaitzazu zorioneko. Eta emaguzu ingurukoak zorioneko egiteko bihotz handia. Arantzazuko Amaren otoitzez eta Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Oparigaien gaineko otoitza

Hartu, Jauna, pozez gainezka dagoen
zure Elizaren dohainok,
eta Birjina errugabeagandik jaio den
Kristo salbatzailearengan
on guztiak eman dizkiguzunoi,
emaguzu betiko pozetan parte hartzea.
Jesu Kristo.

Prefazioa

Egoki da, bai, eta zuzen,
nonahi eta beti zuri eskerrak ematea,
Aita guztiz santua,
eta zure handitasuna hots egitea
Maria Birjina, zure alaba maitearen oroipena egitean.

Beraren jaiotza dohatsuak
mundu osoari alaitasuna adierazi zion;
beraren amatasun garbiak
argi pozgarria agertu zion;
beraren bizitza apalak
Eliza osoa argitzen du;
eta beraren aintzara igarotzeak
zeruetara eraman zuen;
hantxe daukagu zain, arreba eta ama bezala,
zu beti kontenplatuz
poztu gaitezen bitartean.

Horregatik, aingeru-taldeekin bat eginik,
pozez beterik goresten zaitugu:

Santu, Santu, Santua...

Jaunartze ondorengo otoitza

Jainko Jauna, sendo gaitzazu
ospatu ditugun misterio hauen fedean,
eta zure Seme Jesu Kristo, Birjinagandik jaioa,
benetako Jainko eta gizon aitortzen dugunez gero,
eskatzen dizugu,
piztueraren indar salbatzaileaz
iritsi gaitezela betiko pozetara.
Jesu kristo.

Homilia

(Ez dakigu Maria izan zen edo ez Zoriontasunen Mendian. Baina ez digu asko inporta, han esandakoak bete-betean burutu baitzituen Mariak. Jainkoaren Hitzak zeinu nabarmenez markatu zuen Mariaren geografian Mendiko Hitzaldia. ***Mendian Hitza zorion egin zen****, esaten dugu gaur. Beste inork ez bezala erakutsiko digu Mariak, Jainkoaren Hitzak nola egiten gaituen zorioneko. Bide hori, zorionaren bidea alegia, ez zaigu berez sortzen. Ez dugu ulertu ere egiten, bestelako bideak baitauzkagu egunero eskainiak eta barneratuak. Ondo egingo genuke gure bideak Jesusen eskaintzarekin konparatzea. Jesusek arrazoi izango balu?).*

Mariaren ibilbidearen geografiak mendira garamatza gaur, Zoriontasunen mendira. Mendiko hitzaldiak biltzen duen Jesusen espiritu hau Mariarengan itsatsia zegoen, sakonean josia. Jesusek aldarrikatzen duen zorionbidea beste inorengan baino hobeto ikusten da Mariarengan. Zein da bide hori, espiritu hori?

Askotan moralizatu egiten dugu bide hau, Zoriontasunak «betebehar» edo «agindu» bezala hartuz. Baina bada aurreragokorik hitz hauetan. Jainkoaren Hitzak Jainkoaren bihotzera garamatza, Jainkoa nola den zoriontsu erakusteko. Beraz, Jesusek Jainkoaren bihotza erakusten digu, hari zerk ematen dion poz eta hura zerk egiten duen zorioneko zehaztuz.

Behartsu izanez, negar eginez, bihotz gozoko izanez,salbazioa emanez, errukituz, bakea eginez, horrela da Jainkoa zorioneko. Eta eskaintza bat egiten zaigu: izan nahi al dugu Jainkoaren eta Jesusen erara eta moldera zorioneko? Mariak bide hori aukeratu zuen eta Jainkoaren Hitzari zorion hori bere bihotzean itsasten utzi zion. Jainkoaren Hitzak gaur zoriona oparitzen digu *(ik. ebanj.)*.

Mariak Zoriontasunen mendian ikasi zuen eta handik erakutsi digu nola izan eta nola bizi zorioneko gure munduan. Ez da gure gizarteak markatzen digun bidea. Hemen aipatzen den zorionak ez dauka zer ikusirik gure atseginkeria eta ondo-behar azalekoekin. Bestelako proiektua da Jesusek Mendian eskaintzen diguna.

Bide honetatik ulertzen da lehenengo irakurgaiak esan diguna: «Jainkoak bera maite dutenen onerako bideratzen dituela gauza guztiak». Jesusen bideak, atsegin izan edo atsegabea izan, gure mesederako egiten du dena. Beretzat aukeratu baikintuen eta bere maitasunean babesten gaitu atergabe *(ik. 1. irak.)*.

Dena hankaz gora jartzen duen proiektua da hau. Pobreen zoriona hots egiten du, negar dagitenen, eztien, bakegileen zoriona. Mariak barru-barrutik onartu eta bizi izan zuen proiektu hau. Eta bere bizieraz *(ikus Magnificat abestia)* erakutsi zigun zoriontasunen bidea dela gure mundua askatzeko bide bakarra. Gure mundua zuzendu nahi badugu, Jesusek eta Mariak Mendiko hitzaldiaren espiritura biltzen gaituzte, han Jainkoaren zorion-bideak ikasteko. Azken batean, besteak zoriontsu egitea izango da gure zorion-bide ziurra.

Arantzazuko mendiak ere Zoriontasunen bidea aldarrikatu nahi du. Gure garaiotan sinesgaitza gertatzen zaigun arren, ez dago beste biderik. Jesusen bideak arrazoia du.



Maria, Hitzaren ikasle eta testigu

Seigarren eguna
(Irailak 5 - igandea)

BIDEAN HITZA BIHOTZ

Meza

Santa Maria, Jaunaren ikaslea

Irakurgaiak

Ben Si 51, 13-18	*(Ik. liburuxka honetan, 71 orrialdea)*
Sal 18	*(Ik. liburuxka honetan, 71 orrialdea)*
Flm 9b-10. 12-17	*(Ik. liburuxka honetan, 72 orrialdea)*
Mt 12, 46-50	*(Ik. liburuxka honetan, 72 orrialdea)*

Sarrerako monizioa

Bederatziurreneko seigarren egunean aurkitzen gara, igandean gainera. Mariaren eskutik eta Jainkoaren Hitzaren egintza gozatuz, bidera goaz, Jesusen segizioaren bidera.
Jainkoaren Hitzak edertasun asko gorpuztu zuen Mariarengan. Baina, denen gainetik bat, Jesusen ikasle eta jarraitzaile egin zuela. Maria, Nazareteko sukalde gordean bazegoen ere, Jesusen bidean zebilen beti, bihotza haren segizioan jarrita baitzeukan. Segizio horretan ikasi zuen Jesusen ama izaten, ez bakarrik ama fisikoa, baizik eta batez ere, ama jarraitzailea. Gorputzez baino bihotzez egin behar izan zuen Jesusen ama. ***Bidean Hitza bihotz*** izan zuen beti Mariak. Guri ere erakutsiko digu Jesusen bidelagun izaten, haren ikasle eta jarraitzaile garenez. Ez da aski kristau garela esatea, haren bidea egin behar da, Hitza adituz.
Osa dezagun familia eta elkarte bakarra fedean. Eta esna gaitezen ospaketara. Mariak babes dezala gure ospakizun hau. Has gaitezen kantuan!

Apaizaren agurra

Aitaren eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean.

Bere biderako Espiritua ematen digun Jesus Jauna bego zuekin!

Damu otoitza

Senideok: Jesusen bidea egitea dugu eginkizun, haren segiziora deituak izan garenok. Mariak leial egin zuen bere Semearen bidea, gorputzez ama izatetik obedientziaz ama izatera pasatuz. Bide hori ahaztu egiten dugu zenbaitetan eta azalean bizi dugu gure kristau-segizioa. Eska dezagun, bihotz berri baterako behar dugun errukia.

– Jesus Jauna, gure jakinduria eta Maisu bakar zarena. Erruki, Jauna.
– Jesus Jauna, Maria esaneko eta jarraitzaile egin zenuena. Kristo, erruki.
– Jesus Jauna, guri ere esaneko izateko Espiritua ematen diguzuna. Erruki, Jauna.

Otoitza

Egin dezagun otoitz.
Jainko gure Jauna, Maria Birjina dohatsuarengan
zure hitza betetzen duen ikasle leialaren
eredua eman diguzu;
zabaldu gure bihotzak salbazio-mezua aditzeko,
Espirituaren egitez gure barruan bere lana egin
eta fruitu ugaria eman dezan.
Zure Seme Jesu Kristo.

Lehen irakurgaia. Oharpena

Benetako jakinduri bideak eta portaera nabarmentzen dizkigu irakurgai honek. Mariak obedientziaren jakinduria aukeratu zuen beretzat. Entzun dezagun!

Ben Si 51, 13-18 *(Ik. liburuxka honetan, 71 orrialdea)*

Bigarren irakurgaia. Oharpena

Onesimo esklaboak ihes egin dio Filemoni. Paulok mesedea eskatzen dio Onesimorentzat, eta esklabo bezala baino anaia maite bezala har dezala eskatzen dio. Entzun dezagun!

Flm 9b-10. 12-17 *(Ik. liburuxka honetan, 72 orrialdea)*

Alleluia aurretik

Mariak gorputzeko amatasunetik segizioko amatasun berrirako bidea egin behar izan du, guri ere bidea erakutsiz. Bihotz zabalez jaso dezagun Ebanjelioa. Presta gaitezen aleluiaka!

Mt 12, 46-50 *(Ik. liburuxka honetan, 72 orrialdea)*

Jainko-herriaren otoitza

Senideok: Mariak Jainkoaren Hitzari menpeko izaten erakutsi digu. Eska dezagun Jainkoaren Hitzaren bedeinkazioa beharrean dauden guztientzat, Jainkoaren gorespen librera iritsi daitezen. Esperantzaz kanta (esan) dezagun:

ENTZUN, JAUNA, GURE ESKARIAK.

- Fededunen alde:
  Jainkoaren Hitzari garrantzia aitortuz, Jainkoaren nahia egitearen askatasun ederra goza dezaten.

- Euskal Herrian bizi den Elizaren alde:
  denon artean, gizartean erakargarri egin dezagun Jesusen Berri Ona, denek bizi-sena izan dezaten.

- Elizan beren ardura eta lana ari duten kristau laikoen alde:
  gizarteko beren eginkizunetan Berri Onaren askatasuna eta bizipoza aldarrika ditzaten.

- Sufritzen ari diren guztien alde, gaixoen alde, kartzelatu eta kaltetu guztien alde, beldurrez bizi direnen alde:
  bizi duten sufrimenduak ez ditzan barruan itsutu, baizik, Jauna gertuan sentituz, duintasunez bizi daitezen.

- Arantzazuko Andre Mariaren Bederatziurrena ospatzen ari garenon alde:
  Mariagandik ikas dezagun Jaunarekiko menpetasuna, Berri Onaren esker onean.

Entzun, gure Aita errukiorra, eskariok. Zaindu ezazu zeuretzat aukeratu duzun eliz elkartea. Egin dezala beti zure nahia. Arantzazuko Amaren otoitzez eta Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Oparigaien gaineko otoitza

Onez begira, Jauna, zure Semearen ama eta ikaslearen
oroipena egitean pozez dakarzkizugun dohain hauek,
eta emaguzu, berari esker,
geure indarrez lortu ezin dezakegun
jakinduriaren grazia.
Jesu Kristo.

Prefazioa

Egoki da, bai, eta zuzen
nonahi eta beti zuri eskerrak ematea,
Jauna, Aita guztiz santu,
Jaungoiko ahalguztidun betiereko horri,
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Haren Ama, Maria Birjina dohatsuari
arrazoiz deitzen diote zorionekoa,
bere errai garbietan zure Semea
haur egitea merezi izan baitzuen.
Baina arrazoi gehiagoz
aitortzen dute zori hobekoa,
hitz gizon eginaren ikasle bezala,
zure nahia bilatu eta
leialtasunez betetzen asmatu baitzuen.

Horregatik, aingeru eta santu guztiekin
goresten zaitugu, etengabe kantatuz:
Santu, Santu, Santua...

Jaunartze ondorengo otoitza

Egin dezagun otoitz.
Eukaristia honek indarturik,
pozez gainezka eskatzen dizugu, Jauna,
Ama Birjinaren eredua jarraituz,
Kristoren benetako ikasle izan gaitezela,
haren hitzak arretaz adituz eta leialtasunez betez.
Jesu Kristo.

Homilia

(Menditik bidera gatoz. Maria bidean jartzen dugu gaurkoan. Baina bidea esatean, batez ere bere semearen segizioko bidea adierazi nahi dugu, leku fisiko bat baino gehiago. Espirituaren geografia da. Eta bere menpetasun-prozesuan adierazten du Mariak bere bide-bokazioa. Jesusen ama fisikoa izatetik, haren ama espirituala izatera pasa behar du. Eta amatasun berria Jainkoaren Hitza entzun eta betetzean erakusten du. Bere ***bide honetan Hitza bihotz*** *izan zuen beti Mariak. Prozesu hori bizi izan zuen Mariak eta prozesu horretara gonbidatzen gaitu gu).*

Menditik bidera gatoz. Askotan esan dugu Mariaren lekua Nazareteko sukalde gordea izan zela. Beraz, normalean ez zen ibili Jesusekin herriz herri, ikasleak ibili ziren bezala. Mariaren segizioa Nazareteko isilean gertatu zen. Hala ere, bideaz hitz egiten dugu, Mariak bide bat egin behar izan baitzuen. Jesusen ama gorputzez izatetik, fedez izatera pasa behar izan zuen. Eta ez zen Mariarentzat bide hau oso erraza izan.

Mariak asko daki bideaz. Nazareten emandako baietzak ez dio bakean utzi eta beti Jainkoarengana leialtasunezko bidean hazi behar izan du. Beti ikasten. Beti libreago izaten. Beti dena Jainkoari entregatzen.

Hori izan zen Mariak atergabe landu zuen jakinduria. Bere ama-bihotza beti bila, beti esaneko, beti erne gorde zuen. Jainkoaren Hitzak eraman zuen bilaketa horretan, bere Semearen bidea beregan heldutasunera iritsi zen arte. «Neure bizitzaren azkeneraino bilatu dut... Bide zuzenetik ibili dira nire oinak». *(ik. 1. irakurgaia)*.

Askotan egin izan den bezala, pentsa zitekeen, pentsa daiteke, Jesusen Ama izatea dela Mariaren bizitzako gailurra. Jesusek, ordea, pauso bat gehiago emanarazten dio. «Zori hobekoak, Jainkoaren Hitza entzun eta betetzen dutenak». Mariaren bidea azkengabekoa izan da. Hasierako baietza gurutzearen oinetan heldu eta Mendekoste mirarian osatu zen arte, Mariak bazekien bidea zer den. Ebanjelioko pasarteak ederki erakusten du prozesu horren norabidea *(ik. ebanj.)*.

Bide honen beste adibide bat bigarren irakurgaiak ematen digu. Pauloren ikasbidez, Filemonek bide bat egin behar izan du. Bere esklaboak etxetik alde egin zion. Orain berriro etxera datorkio, baina, Pauloren eskabidez, ez esklabo bezala, «anaia maite» bezala baizik. Prozesu sakon baten adibidea da, dudarik gabe *(ik. 2. irak.)*.

Gu ere bidean goaz, beti hazten, beti sakontzen. Bidearen lezio librea eskaintzen digu Mariak. Erreinua bidean dago. Berri Ona bidean gertatzen da. Zenbaitetan pentsatu izan dugu kristau-auzia «egietan» jokatzen dela. Egiak ikasi, doktrina jakin... Ez da horrela, ordea. Jainkoak bereganako bidean jarri gaitu, eta hori da garrantzizkoa, garenetik Jaunarenerako bidea atergabe egitea. Jainkoaren Hitzak guregan etenik gabe egiten duen bidea da. Hori da gaur jaso behar genukeen lezioa. Bidearen lezioa!

Bide hori esanekotasuna sakonduz eta garatuz egiten da. «Nire Aitaren nahia egiten duena». Nahi horren harian jartzen gaitu Hitzak beti. Baita ospatzen ari garen Eukaristia honek ere.



Maria, Hitzaren ikasle eta testigu

Zazpigarren eguna
(Irailak 6 - astelehena)

GOLGOTAN HITZA MAITASUN BETE

Meza

Maria Birjina, Jaunaren gurutzearen ondoan (II)

Irakurgaiak

Heb 5, 7-9	*(Ik. liburuxka honetan, 73 orrialdea)*
Sal 115	*(Ik. liburuxka honetan, 73 orrialdea)*
Jn 19, 25-27	*(Ik. liburuxka honetan, 73 orrialdea)*

Sarrerako monizioa

Bederatziurreneko zazpigarren eguna dugu. Mariaren bidean aurrera goaz, haren bizikizunak hausnartu eta barneratuz. Hala egiten badugu, ongi egingo dugu.
Zazpigarren egun honek Jerusalema garamatza, Golgota mendixkara, hain justu. Jainkoaren Hitzak honaino ekarri zuen Maria, leku honetaraino, baina, batez ere, esperientzia ikaragarri honetaraino. Mariaren sinesmenaren geografia markatzen duen lekua da Golgota. **Golgotan Hitza maitasun bete** egin zen, eta Mariak parte hartu behar izan zuen maitasunaren betetasun eder bezain latz honetan. Hasierako baietzak begira nora ekarri duen gure ama.
Ospatzera goazen Eukaristia honek ere Golgotara garamatza, maitasunaren betetasuna agertu zen mendixkara. Eukaristia honetan bizi-ko dugu, izan ere, maitasunaren esperientzia ederra. Guk ere Jainkoaren Hitza dugu gidari, Mariak bezalaxe.
Mariaren eskutik ekin diezaiogun hasierako kantuari, sinesmenaren bidea adorez egiteko.

Apaizaren agurra

Aitaren eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean.

Guretzako maitasunez bizi eta hil zen Jesus Jauna, zuekin!

Damu otoitza

Senideok: Maria bezalaxe, gurutzearen oinetan gaude. Maitasuna eta errukia bere beteenean azaldu ziren esperientzia honetan. Asko kostatzen zaigu maitasuna sinestea. Eta sarri asko esker txarrez erantzuten diogu Jainkoaren maitasun neurrigabeari. Hasi gaitezen errukia eskatuz. Izan dezagun maitasunean konfiantza.

- Jesus Jauna, Guretzat eta guregatik bizi eta hil zinena. Erruki, Jauna.
- Jesus Jauna, Maria, zure Ama, gurutzeraino eraman zenuena. Kristo, erruki.
- Jesus Jauna, gurutzetik gure salbamen-iturri zaituguna. Erruki, Jauna.

Otoitza

Egin dezagun otoitz.
Gure Jainkoa,
zure Ama ere zure Semearen
gurutzearen oinean egotea nahi izan zenuen,
haren nekaldia partekatzen,
zaindu itzazu zure familian salbazioaren emaitzak
eta egizu egunetik egunera hazi daitezela.
Zure Seme Jesu Kristo.

Lehen irakurgaia. Oharpena

Ebanjelioaren atari bezala, Hebertarrei idatzitako gutunak Jesus sufrimenduan esaneko izaten ikasten azaltzen digu. Hartara, guztiontzat salbamenaren iturri bihurtu zen.

Heb 5, 7-9 *(Ik. liburuxka honetan, 73 orrialdea)*

Alleluia aurretik

Maria Jesusen gurutzearen oinetan, Jainkoaren Hitzak hara ekarrita. Honainokoa izan zen Mariaren baietza. Bihotzak gora, Ebanjelioen liburua gora eta kantuz jasoko dugu maitasunaren hitza!

Jn 19, 25-27 *(Ik. liburuxka honetan, 73 orrialdea)*

Jainkoherriaren otoitza

Senideok: Jesusen gurutzean maitasun betea eman zaigu. Maitasun horren fruituak eskatu behar ditugu orain gizon-emakume guztientzat, beharrean daudenentzat, batik bat. Kanta dezagun:

GURE OTOITZA ENTZUN, JAUNA.

- Otoitz egin dezagun munduko herri guztien alde... Otoitz, gerran dabiltzan herrien alde... *(Isil une luze xamarra)*...

- Otoitz egin dezagun gure Euskal Herriaren alde... Beren bizitzari estimaziorik ez diotenen alde...

- Gogoan izan ditzagun etorkinak, arrazismo-arazoa bizi dutenak, tratu txarrak jasotzen dituzten emakume eta haurrak...

- Otoitz egin dezagun sufritzen ari diren guztien alde... Gogoan izan ditzagun gure gaixoak eta bakarrik sufritzen dutenak...

- Egigun otoitz oinarriko duintasuna aitortzen ez zaienen alde... Sida edo droga dela-eta, errukarri aurkitzen direnen alde... Gure senide eta adiskide guztien alde ere agin dezagun otoitz...

Zeure Semearen gurutzeraino maite izan gaituzun Aita ona, emaguzu zure maitasunean bizitzea eta maitasun horretan elkarren senide izatea. Hala eskatzen dizugu Mariaren otoitzez eta Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Oparigaien gaineko otoitza

Aldatu itzazu, Jauna dohain hauek
Espiritu Santuaren egitez,
Birjina santuak beretzat hartzen duen
aldareko opariaren bidez,
munduaren bekatua ezaba dadin
eta zeruko ateak ireki dakizkigun.
Jesu Kristo.

Prefazioa

Egoki da, bai, eta zuzen,
nonahi eta beti zuri eskerrak ematea,
Jauna, Aita guztiz santu,
Jainko ahalguztidun betiereko horri,
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Izan ere, gizadia berritzeko,
azkengabeko jakinduriaz nahi izan duzu
Eva berria Adan berriaren gurutze-ondoan egotea,
Espiritu Santuaren egitez bere Ama zen hark,
zure ontasunaren dohain berriz,
Semearen nekaldian parte izan zezan;
eta haur egitean izan ez zituen oinazeak,
jasan zitzan gu zuregana jaioaraztean.

Horregatik, aingeru eta goi-aingeruekin
eta zeruko talde guztiekin,
etengabe kantatzen dugu
zure aintzaren gorazarrea:

Santu, santu, santua...

Jaunartze ondorengo otoitza

Begira, Jauna, Ama Birjinaren saminak
gogoratu ditugun zure zerbitzarioi,
eta pazko-sakramentuez janaritu dituzunoi
emaiezu, eguneroko gurutzea eramanez,
Kristoren piztueran parte izatea
Jainko eta errege.

Homilia

(Jainkoaren Hitzak Mariarengan eragin duen ibilaldian, hor dago Golgota mendixka. Nazaretetik urruti gelditzen den mendixka da. Jesusek aspaldian hartua zuen Jerusalemerako bidea, eta hor kokatzen da mendi honetako esperientzia. Maria ezin zitekeen une honetan urruti izan. Nazareteko baietzak une hau berekin zekarren. Jainkoaren Hitzak ***Golgota maitasun betearen agerpen*** *bihurtuko du. Eta maitasunaren une nagusian hortxe dago «emakumea», Maria. Hemen ere, Belenen bezala, erditzen. Ikasleentzat beren bidearen erreferentzia izan zen Jerusalemgo Golgota, Mariarentzat ere bai eta guretzat ere bai. Juduek arrazoi politikoengatik hil bazuten, Aitak maitasunaren gailur bihurtu du gurutze gaina. Mariak maitasun horretara laguntzen gaitu.).*

Orain arteko urratsek Maria esanekotasunean hazten eta garatzen erakutsi digute. Nazareteko abiapuntuak indar handia hartu du obediantziazko iiblbidean. Hasierako baietz hark nora eraman behar ote zuen Maria? Noraino garatu eta sakondu behar otre zuen bere esanekotasuna? Gaur ikusten dugunak erantzunen bidean jartzen gaitu.

Mariaren geografiak Golgotara garamatza. Maitasuna burutzen den mendixkara. Oso nekez irudika daiteke han gertatu zena eta han Mariak bizi izan zuena. Hitzaren eskutik iritsi da fede bizian mendi honetara. Jainkoaren Hitzak bakarrik euts diezaioke zutik gurutzearen oinetan. Ikaragarriegia da hemen gertatzen ari dena. Zer izan ote zen Mariarentzat, amarentzat, bere Semea han gurutzean josita ikustea, gaizkile bailtza? *(ik. ebanj.).*

Orain ulertzen du Mariaren hasierako baietzaren neurria eta sakontasuna. Orain esan eta eman behar du baietz betea. «Zuk esan bezala». Horra berriro ere Mariaren bihotz hautsiari ateratzen zaion jarrera. Ez du ezer ulertzen. Espero du. Sinesten du. Maite du. Eta dena Jainkoaren eskuetan uzten du.

Jesusek sufrituz ikasi zuela obeditzen, esan digu Hebertarrei egindako gutunak. Ez Jesusek bakarrik. Mariak ere bai. Obedientzia horren sakontasunak bete-betera eramaten du Mariaren bokazioa *(ik. 1. irak.).*

Atzo Maria amatasun batetik bestera hazten ikusi genuen. Gaur Jesusek seme-alaba asko uzten dizkio zaindu eta elikatu ditzan. «Horra hor zure semea». Mariak beste pauso handi bat ematen du eta gure basamortuan geratzen da gure bidea egiten, guregan erditzen, gure bidelagun izaten. Hau ere obedientzia da!

Golgotak lezio handiak uzten dizkigu: sinesmenaren lezioa, aurrena. Une hau ezin daiteke gure ulermenera mugatu. Inon eskatzen baldin bazaigu fedea, hemen eskatzen zaigu. Fedeak bakarrik uler dezake Jainkoak nola eta zenbat maite gaituen.

Maitasunaren lezioa, bigarrenik. Hau da maitasuna, maitasunik baldin bada. Gure maitasunez bizi izan zenak, gure maitasunez entregatzen du bizia, bizi gaitezen, eta maitatuak senti gaitezen gure bizitzan.

Esanekotasun erabatekoaren lezioa ere bai. Mariaren jarrera fededuna nekez uler daiteke giza parametroetan. «Espirituak hartuko zaitu» eta Espirituak, Jainkoaren Hitzak, egin dezake horrelako esanekotasuna, horrelako obedientzia.

Jainkoaren presentziaren lezio betea. Golgota asko eraiki dugu munduan. Jesusen ondoan gurutziltzatuta jende asko jarri dugu. Gaurko gurutziltzatu horietan egiten zaigu presente Jainkoa, ikusi nahi badugu!

Eukaristia ospatuko dugu orain Golgotako maitasun betean!



Maria, Hitzaren ikasle eta testigu

Zortzigarren eguna
(Irailak 7 - asteartea)

PAZKO-BARATZEAN HITZA BIZI BERRI

Meza

Maria Birjina Jaunaren piztueran

Irakurgaiak

Ab Ed 3, 1-4a	*(Ik. liburuxka honetan, 74 orrialdea)*
Sal 62	*(Ik. liburuxka honetan, 74 orrialdea)*
Jn 20, 11-18	*(Ik. liburuxka honetan, 75 orrialdea)*

Hasierako monizioa

Bederatziurrenaren zortzigarren eguna dugu gaurkoa. Arantzazuko Amaren itzalean, Jainkoaren Hitzak Pazkoko baratzera eramango gaitu gaur.

Jainkoaren Hitzak ez zuen Maria Golgota mendian utzi. Fedearen sendotasuna azkenraino erakutsi behar izan zuen Mariak, bere Semearen heriotzaraino. Ebanjelioetan ez zaigu esaten Jesus berpiztua Mariari azaldu zitzaionik. Baina, seguru dakiguna da, Mariak beste inork ez bezala bizi izan zuela Jesusen piztuera. Horregatik, kokatzen dugu ***Maria Pazkoko baratzean***. Bere Semea azaldu ez bazitzaion ere, Mariak sakonki bizi izan zuen Pazkoko esperientzia berdingabea. Gaur guk berarekin batera bizi nahi dugu Jesus berpiztuaren presentzia askatzailea.

Jainkoaren Hitza entzunez, Eukaristiako maitasuna ospatuz, Mariaren hurbiltasun fededuna sentituko dugu.

Mariaren babesean, ekin diezaiogun fede beroz gure ospakizunari. Has gaitezen kantuz!

Apaizaren agurra

Aitaren eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean.

Berpizturik bizi berri dugun Jesus Jauna, zuekin!

Damu otoitza

Senideok: Eukaristia bakoitza Jesus berpiztuarekin topo egitea da. Baina, asko kostatzen zaigu sinestea eta Jesusen Pazkoaren argitan bizitzea. Ospakizunari hasiera emateko, jar dezagun geure burua Pazkoko baratzean, han Berpiztuarekin topo egiteko. Begirada berria behar dugu. Jaunaren errukiak emango digu begirada garbi hori. Sinets dezagun errukian.

– Jesus Jauna, berpizturik gure bizi berria zaituguna. Erruki, Jauna.
– Jesus Jauna, bilatzen zaituztenei agertzen zatzaizkiena. Kristo, erruki.
– Jesus Jauna, Mariaren bihotza pazkoz bete zenuena. Erruki, Jauna.

Otoitza

Egin dezagun otoitz.
Gure Jainkoa, Jesu Kristo
zure Semearen piztueragatik
alaitasunez bete duzu mundua,
emaguzu, zure Amaren otoitzez,
betiko pozetara iristea.
Zure Seme Jesu Kristo.

Lehen irakurgaia. Oharpena

Abesti Ederrenaren liburuak maitearen bila jartzen digu protagonista. Mariak, bere fedez, uneoro eta bihotzetik bilatu zuen bere Seme maitea. Entzun arretaz!

Ab Ed 3, 1-4a *(Ik. liburuxka honetan, 74 orrialdea)*

Aleluia aurretik

Ebanjelioak deskribatzen digun koadroa, era batera edo bestera bizi izan zuen Mariak, Jesusen Amak. Ebanjelio-liburua jaso, bihotzak erne eta aleluiaka presta gaitezen Jesusen hitzak entzuteko! Zutik!

Jn 20, 11-18 *(Ik. liburuxka honetan, 75 orrialdea)*

Jainko-herriaren otoitza

Senideok: eskariak egiteko tartea dugu orain. Jesus berpiztuaren argia eskatu behar dugu sufrimenduaren ilunpetan dauden guztientzat. Maria lagun hartuta, egin dezagun otoitz, kantatuz (esanez):

ENTZUN, JAUNA, ESKATZEN DIZUGU.

- Berpiztuarengan sinesten duten fededunen alde:
  Pazko-esperientzia sakonetik berrituz, Berri Onaren testigu eta azalpen izan daitezen.

- Mundu berri bat egiten saiatzen diren gizon eta emakumeen alde:
  elkar maitasunean sendo iraun dezaten.

- Bila dabiltzan guztien alde:
  Jesusekin topo egin eta, haren piztueraren argitan, bila jarrai dezaten.

- Gaitzaren erasoa dela eta, Jesusen Aitarengan sinetsi ezin dutenen alde:
  Berpiztua bidean lagun datorkiela ohar daitezen, eta aurrera egiteko adorea izan dezaten.

- Arantzazuko Amaren oinetan elkarturik gaudenon alde:
  ospatzen ari garen Eukaristia honek Jesu Kristo berpiztuaren adierazle sutsu egin gaitzan.

Gure Aita errukiorra, entzun gure eskari ustetsuak. Argi gaitzazu Berpiztuaren argi askatzaileaz eta egin gaitzazu argiaren zerbitzari leial. Arantzazuko Amaren otoitzez eta Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Oparigaien gaineko otoitza

Santa Maria Birjinaren oroipena ospatzean,
aurkezten dizkizugu, Jauna, gure eskaintzak
eta eskatzen dizugu zure Seme Jesu Kristok,
gurutzeko aldarean apaiz eta opari dugunak,
babes gaitzala beti bere graziaz.
Jesu Kristo.

Prefazioa

Egoki da, bai, eta zuzen,
nonahi eta beti zuri eskerrak ematea,
Jauna, Aita guztiz santu,
Jainko ahalguztidun betiereko horri.

Jesu Kristo zure Semearen piztueran
alaitasunez bete zenuen Ama Birjina
eta bere sinesmena harrigarriro saritu zenion:
berak bere Semea fedez erne baitzuen,
eta sinetsiz itxaro zuen haren piztuera;
fedean indarturik, aurrez ikusi zuen
argiaren eta biziaren eguna,
heriotzaren gaua itzalita
mundu osoak pozez jauzi egingo zuen eguna
eta Eliza ere, bere Jauna hilezkor ikustean,
handiki poztuko zen eguna.

Haren bitartez,
aingeruek pozez egiten dizute kantu,
eta guk ere haien ahotsekin bat egiten dugu,
zure gorespena apalki kantatzeko:

Santu, santu, santua...

Jaunartze ondorengo otoitza

Jainko indartsua, sendo gaitzazu ospatu ditugun
misterio hauen sinesmenean,
eta, zure Seme Jesu Kristo, Mariagandik jaioa,
egiazko Jainko eta gizon aitortzen dugunez gero,
arren eskatzen dizugu,
beraren piztueraren indar salbagarriaz
iritsi gaitezela betiko pozetara.
Jesu Kristo.

Homilia

(Ebanjelioek ez dute baiesten tradizioak esan izan duena, Mariari agertu zitzaiola Jesus berpiztua beste edonori baino lehenago. Zaila da ezetz edo baietz esatea. Baliteke hala izatea. Hala eta guztiz ere, gure eginkizuna ez da hori argitzea. Dudarik gabe, Mariak izan zuen Pazko-esperientzia handia, inork baino handiagoa. Horregatik daramagu gaur ***Maria pazko-baratzera, han Jainkoaren Hitza bizi berri egina*** *ikusteko. Pazko-esperientzia hori gozatzea dagokigu, Mariaren eskutik Jainkoaren Hitzari bere egintza egiten utziz. Hona erabil daitezkeen ideia batzuk:).*

Golgota menditik Pazkoko baratzera gatoz gaur. Isiltasun betean ehortzitako Hitzak argizko erasoz altxatu ditu bazterrak. Hil zen Hitza, bizi da! Maitasunez hil zen Hitza, maitasunaren Hitz betea esaten ari da. Pazkoa du Mariak eta Pazkoa dugu guk.

Ebanjelioek ez digute kontatzen Jesus Berpiztuaren eta Mariaren arteko topaketa berezirik. Ez dakigu topaketa hori gertatu zen ala ez. Bada gertatu zela aipatzen duen tradizioa. Baina, seguru asko, Mariak fedearen bidez eutsi behar izan zion hasierako baietzari. Pedrok eta ikasleek kontatzen ziotena, berak bazekien egia zela. Beti sinesmenaren argitan. Jainkoaren Hitzaren testigantza isila aski zuen Mariak. Jainkoaren Hitza argi handi eta bizi berri egin zitzaion bere bihotzean.

Lehenengo irakurgaiak aipatu duen maitalea ama Maria izan daiteke. Bere sinesmenaren kaleetan bila dabil, bere Seme maitearen bila, sabelean eraman eta fedean sortu duenaren bila. «Ikusi al duzue nire bihotzaren kutuna?». Eta Mariak, bere fedearen topaketan, sendo heldu dio Jesus berpiztuari. Fedearen miraria da Maria *(ik. 1. irak.)*.

Magdalako Mariak ebanjeliokoan bizi duen topaketa hori, nola gertatu ote zen Ama Mariaren bihotzean? Nola aldatu ote zen Amaren negarra, Golgotako negarra, Pazkoko poz eta edertasun? Esan ezin halako esperientzia da, dudarik gabe. Ama Mariak zenbat aldiz esan ote zuen bere bihotzeko isilean: «Zuregan sinesten dut, ene Seme; zuregan sinesten dut, ene Jaun». «Ene Jaun» horretan zenbat bihotz eta zenbat sendotasun gordetzen ote zen! *(ik. ebanj.)*.

Baratzeko harriarekin batera harri asko kendu zituen Jainkoaren Hitzak Elizaren bidetik. Bizia dugu bokazio eta bizia dugu adierazpen. Bizia bizitzea dugu bokazio eta biziaren Hitza adieraztea eginkizun. Pazkoan dena salbatua izan da! Pazkoan dena argitu da!

Magdalako Mariak bezala «Maisu!» esango diogu. Pedrok eta Joanek bezala, korrika bilatuko dugu. Emausko ikasleek bezala bidelagun sentituko dugu. Jesusen Piztuerak biziaren geografia mundu guztira zabaldu du, bide guztietara zabaldu du. Jainkoaren Hitzak Pazkoan utzi gaitu betiko!

Hala ere, bakoitzaren barruan gertatzen da esperientzia maiteena eta benetakoena. Mariak bezala, geure sinesmenaren bihotzean aitortuko ote dugu geure Jaun eta geure maite! Eukaristia honek ere Pazkora garamatza zuzen-zuzenean. Sinetsi ezinaren harri handia kendu eta bihotza berrituko digu Jesus berpiztua sinets dezagun. Jainkoaren Hitzak guregan ere Pazkoko esperientzia gertarazten du.



Maria, Hitzaren ikasle eta testigu

Bederatzigarren eguna
(Irailak 8 - asteazkena)

MENDEKOSTEKO AFALTOKIAN HITZA MISIO

Meza

Afaltokiko Maria Birjina

Irakurgaiak

ApEg 1, 12-14; 2, 1-4	*(Ik. liburuxka honetan, 75 orrialdea)*
Sal 86	*(Ik. liburuxka honetan, 76 orrialdea)*
Jn 20, 19-23	*(Ik. liburuxka honetan, 76 orrialdea)*

Hasierako monizioa

Bederatziurrenak azken eguna du gaur eta, gainera, Ama Mariaren jaiotza ospatzen dugu. Bihar gure Amaren festaburua ospatuko dugu.
Jainkoaren Hitzak, bere ibilaldi ederrean, Afaltokiko aretora garamatza, Jerusalemgo hirian. Han ospatu zuen Jesusek azken afaria eta hara bidali ditu bere ikasleak, han Espirituaren zain egon daitezen. Ama Maria ere han dago ikasleekin batera. **Mendekosteko Afaltokian Hitza misio egiten da** ikasleen bihotzean. Itxaropenaren otoitz beroa Espirituaren haize-bolada bihurtzen da Afaltokiko batzartuen bihotzean. Mariari nola eragin zion misioa Espirituak? Seguru asko, bizitza osoan bezala, orain ere gordera eramaten du Berpiztuaren Espirituak Ama Maria, bere gorde hartatik Elizari sinesmenean eusteko.
Goazen denok Espirituaren Afaltokira Eukaristi ospakizun honetan. Utz diezaiogun Espirituari gure bihotzetan bere lana egiten. Kanta dezagun!

Apaizaren agurra

Aitaren eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean.

Bere Espiritu biziemailea isurtzen digun Jesus Jauna izan bedi zuekin.

Damu otoitza

Senideok: Mendekosteko Afaltokira gakartza gaur Jainkoaren Hitzak. Espirituaren miraria gertatuko da Arantzazuko eliza honetan ere. Maria eta ikasleak otoitzean harrapatu zituen Espirituaren etorrerak. Gu ere hala harrapatuko gaitu. Eska dezagun bihotz irekia Espirituari harrera egiteko. Eska dezagun errukia.

- Jesus Jauna, Espirituaren etengabeko iturria zarena. Erruki, Jauna.
- Jesus Jauna, Espirituaren eraginez mundua berritzen duzuna. Kristo, erruki.
- Jesus Jauna, Mariaren otoitzez guri Espiritua ematen diguzuna. Erruki, Jauna.

Otoitza

Egin dezagun otoitz.
Jainko gure Jauna,
Espiritu Santuaren dohainez bete zenuen Birjina Maria,
apostoluekin otoitzean ari zela;
emaguzu, haren otoitzez,
Espiritu berak aserik, otoitzean elkarturik iraun dezagula,
eta eraman diezaiegula gure senideei
salbamenaren Berri Ona.
Zure Seme Jesu Kristo.

Lehen irakurgaia. Oharpena

Ikasleak eta Maria otoitzean ari zirela, Berpiztuaren Espirituak hartzen ditu. Eta Espiritu horren haize-boladak misiora ateratzen ditu, beldur guztiak gaindituz, Berri Onaren hizkera berriz.

ApEg 1, 12-14; 2, 1-4 *(Ik. liburuxka honetan, 75 orrialdea)*

Aleluia aurretik

Hona Jesusek Elizari ematen dion eginkizuna, bakearen Berri Ona mundu osora hedatzea. Berri Onari dagokion festa egin dezagun: Ebanjelio-liburua jaso, intzentsuz lurrindu eta aleluiaka jasoko dugu Hitza!

Jn 20, 19-23 *(Ik. liburuxka honetan, 76 orrialdea)*

Jainko-herriaren otoitza

Senideok: Maria otoitz-lagun harturik, jo dezagun Jaunarengana. Eska dezagun Mendekosteko Espiritua Elizarentzat. Eska ditzagun Espirituaren emaitzak gizonemakume guztientzat. Kanta dezagun:

ENTZUN, JAUNA, GURE ESKARIAK.

- Eliz elkartearen alde:
  Espirituaren eraginez, mundu berri baterako Berri Ona zabal dezan gizartean.

- Bakean bizitzen asmatu ezin duten herrien alde:
  Espirituaren eraginez, desberdintasunak aberasgarri bihur ditzaten eta ez elkarren kontrako aitzakia.

- Sufritzen ari diren familien alde:
  Berpiztuaren Espirituak barrutik indartu ditzan, etsi gabe bizi eta bakea gozatzeko.

- Esperantza galdu duten guztien alde:
  Espirituaren miraria gerta dakien bihotzean eta aurrera egiteko adorea izan dezaten.

- Amaren festa pozik ospatzen ari garenon alde:
  Mariak babes gaitzan gure misioan eta haren itzalak eutsi ezinaldian.

Eskerrak, Aita ona, Mariaren otoitzez zure Espiritua ematen diguzulako. Espiritu honek argiturik, bizi gaitezela Berri Ona gozatuz eta iragarriz. Arantzazuko Amaren otoitzez eta Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Oparigaien gaineko otoitza

Onar itzazu, Aita guztiz santua,
pozik ekarri ditugun dohain hauek,
eta egizu, erne egon gaitezela, Ama Birjinaren antzera,
Espirituaren ahotsa entzuteko
eta gauza guztietan zure aintza gorets dezagula.
Jesu Kristo.

Prefazioa

Egoki da, bai, eta zuzen
nonahi eta beti zuri eskerrak ematea,
Jauna, Aita guztiz santu,
Jaungoiko ahalguztidun betiereko horri.

Lehen eliz elkarte hartan
ikasbide harrigarria eman baitiguzu,
otoitzean eta batasunean bizitzen ikas dezagun:
apostoluekin otoitzean ari den Jesusen Ama.

Kristoren etorrera otoitzean espero izan zuenak
dei sutsuz eskatzen du agindutako Espiritu poz-emailea;
eta Hitza haragi egiteko unean
Espirituaren itzalez estalia izan zenak,
orain berriro Jainkoaren dohain betea jasotzen du
herri berria jaiotzean.

Horregatik, Maria Birjina santua,
otoitzean erne eta maitasunean sutsu ari delarik,
Elizaren irudi da;
Elizak ere, Espirituaren dohainez aberasturik,
arduraz espero baitu Kristoren bigarren etorrera.

Honen bitartez, zure handitasuna aitortzen dute aingeru
eta goiaingeruek, beti pozez elkarturik zure aurrean.
Onar ezazu, Jauna, haien gorespenekin
bat egin ditzagula guk ere geure kantu-hotsak: Santu...

Jaunartze ondorengo otoitza

Berri itzazu barrutik, Jauna, Espiritu Santuaren dohainez
salbamen-ogiaz janaritu dituzunak;
eta egizu, Maria Birjinaren babesaz, lan egin dezagula
senideen batasunaren eta bakearen alde,
haiengatik opari eskaini baitzuen bere burua
Kristo zure Semeak. Zurekin eta Espiritu Santuarekin.

Homilia

*(Bederatziurrenak azken eguna du, eta misioaren iturrira ekarri gaitu **Jainkoaren Hitzak, Mendekosteko Afaltokira**. Han zen Maria, ikasleekin batera. Mariak laguntzen du ikasleen misioa, berea lehengo bakardadera itzultzea izan baitzen, dirudienez. Mendekosteko Espiritua arnasa bihurtzen zaio Elizari. Hizkera desberdinak, herriz herri banatu zituen haize-bolada handia eta Espirituaren egintza betirako Berri On bihurtzen da mundu guztian barna. Mariak eusten dio eliz ebanjelizazioari).*

Hemen burutzen da Mariaren bidea. Nazareten hasi eta Mendekosteko esperientzian burutu. Jainkoaren Hitzak deitu zuena, Jainkoaren Hitzaren betetasunak asetzen du. Orain ulertzen du Mariak egin duen bidea eta Jainkoak eman dion egitekoa.

Jainkoaren Hitzak afaltokira ekarri du, ostegun santuko esperientzia bizi izan zen leku hartara. Otoitzean ari dira etengabe eta sutsu. Han daude ikasleak eta han dago Maria. Zer doa gertatzera? Jesus begietatik ezkutatu zaienetik, Espirituaren zain daude, Jesusek esan bezala. Eta hortxe lehertuko da Espirituaren eragina. Haize-bolada indartsua, hizkera desberdinak, ulermen berbera, hormak puskatuta, jendea harriturik. Mendekosteko harrigarria da *(ik. 1. irak.)*.

Askotan ulertu gabe, Jainkoaren Hitzaz fiatu zen Maria. Eta orain, Mendekosteko argitan, Espirituzko Hitzak argitzen dio dena. Jainkoaren eskuetan bizi izan da eta hark egin duena ikusgarria izan da.

Orain bete da Jesusek ikasleei utzi dien enkargua: «Nik bidaltzen zaituztet». Misioa sortzen da Elizaren bihotzean. Elizarentzat mundu osoa bihurtuko da Jainkoaren Hitzak eratzen dion geografia zabal. Eliza munduari zor zaio, Jesusen Berri Ona gizon-emakume guztientzat aldarrikatu baita. Jesusek eman dien bakea mundu osora zabaldu behar dute ikasleek *(ik. ebanj.)*.

Orain Hitza ikasleen bidez mundura hedatuko da, baina Maria non gelditzen da?, zein du bere eginkizuna? Mariak berriz gordera eta isiltasunera joko du, Espirituak hala esanda. Mariaren misioa Elizari barrutik eustea izango da. Elizaren arima izatea. Elizaren altzoa eta begirada izatea. Mariak, Nazaretetik hasita bizitza guztian egin zuen bezala, berriro ere bere fedearen isiltasunera joko du, Jainkoari esaneko izanez. Jainkoaren Hitzak geografia gordea eratzen dio Mariari.

Maria mundu berriaren argazkia gertatzen da Mendekosteko misterioan. Jainkoaren Hitzak, bere oparotasunez, mundua askatu du. Eta mundua askatuz joango da, Elizak bere misioa betetzen duen bitartean. Jainkoaren Hitza misio egin da Mendekosteko esperientzian.

Bederatziurrena bukatzean, hor gelditu da eder bezain zabal, Mariak egin duen ibilbidea. Ez da ibilbide geografikoa bakarrik izan, Espirituzko ibilbidea izan da, sinesmena heldutasunera eramateko prozesu azkengabea. Eukaristia honetan Espirituak berrituko digu gure misio-deia. Eta Espirituak berak eramango gaitu Berri Ona aldarrikatzera.



Maria, Hitzaren ikasle eta testigu

EGUN BAKOITZEKO IRAKURGAIAK

LEHENENGO EGUNA

Lehen irakurgaia

Isaias profetaren liburutik *(Is 7, 10-14)*

Beste mezu hau ere eman zion Jaunak Akazi Isaiasen bidez: «Eskaiozu zeure Jainko Jaunari ezaugarri bat, nahiz lurraren barrenean nahiz zeru gorenean».

Eta Akazek erantzun: «Ez dut ezaugarririk eskatuko, ez dut Jauna tentatu nahi».

Orduan, Isaiasek esan zuen:

«Entzun, Daviden ondorengook:
gizakiak nekaraztea aski ez duzuela,
nire Jainkoa ere nekarazi nahi al duzue?
Jaunak berak emango dizue, bada, ezaugarria:
hona, andre gaztea haurdun dago eta semea izango du,
eta Emmanuel, hau da, "Jainkoa gurekin", jarriko dio izen.

39. salmoa

Hemen naukazu,
ene Jainko,
zure gogoa
egiteko.

Ez duzu nahi izan sakrifizio eta eskaintzarik,
ez erre-opari, ez bekatuen barkamen-oparirik;
baizik eta belarriak ireki dizkidazu, zuri entzuteko.
Horregatik diot: «Hemen nauzu».

Liburuan agintzen zait zure nahia betetzeko.
Ene Jainko, atsegin dut zure legea neure barne-muinetan.
Batzar nagusian iragarri dut zure salbazioa,
ez ditut ezpainak itxi, ongi dakizu, Jauna!

Ebanjelioa

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik *(Lk 1, 26-33)*

Handik sei hilabetera, Jainkoak Gabriel aingerua bidali zuen Nazaret zeritzan Galileako herri batera, birjina batengana; birjinak Maria zuen izena, eta Jose zeritzan Daviden jatorriko gizon batekin ezkontzeko hitzemana zegoen. Aingeruak, Mariarenean sarturik, esan zion:

–Agur, Jainkoaren gogoko hori! Jauna zurekin.

Hitz hauek entzutean, ikaratu egin zen Maria eta agur horrek zer esan nahi ote zuen galdetzen zion bere buruari. Aingeruak esan zion:

–Ez beldurtu, Maria! Jainkoak gogoko zaitu. Hara, haurdun gertatuko zara, semea izango duzu eta Jesus ipiniko diozu izena. Handia izango da, Goi-goikoaren Seme deituko diote, eta bere aita Daviden tronua emango dio Jainko Jaunak. Israel herriko errege izango da betiko, eta beraren erregetzak ez du azkenik izango.

BIGARREN EGUNA

Lehen irakurgaia
Zakariasen liburutik *(Za 2, 10-13)*
«Egin poz-oihu, alaitu, Sion hiri eder hori,
zuen artean bizitzera nator eta.
Egun hartan, herri asko elkartuko zaizkit,
eta neure herri izango ditut;
zuen artean biziko naiz».
Orduan jakingo duzu
Jaun ahalguztidunak bidali nauela zuregana.
Jaunak bere ondaretzat hartuko du Juda lur santuan,
bere aukeratua izango du Jerusalem berriro.

112. Salmoa

Jauzika daukat
nire bihotza
Jaunarengan.

Goretsazue, Jaunaren zerbitzariok,
goretsi Jaunaren izena!
Bedeinkatua izan bedi Jaunaren izena
orain eta beti!

Eguzkiaren sorlekutik sarlekura,
goretsia izan bedi Jaunaren izena!
Jauna nazio guztien gainean garai,
haren ospea zeruak baino gorago.

Ebanjelioa
Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik *(Lk 2, 1-7)*
Garai hartan, mundu guztiaren errolda egiteko
agindu zuen Augusto enperadoreak.
Lehen erroldatze hau Siriako gobernari Kirino zela egin zen.
Beraz, erroldatzera joan ziren denak, nor bere herrira.
Jose ere, Daviden familia eta jatorrikoa baitzen,
Galileako Nazaret herritik
Judeako Belen zeritzan Daviden herrira igo zen
bere emazte Mariarekin, erroldatzera.
Maria haurdun zegoen.
Belenen zeudela, haurra izateko egunak bete zitzaizkion,
eta lehen-semea izan zuen;
oihaletan bildu eta abere-aska batean ezarri zuen,
ez baitzen ostatuan haientzat tokirik.

HIRUGARREN EGUNA

Lehen irakurgaia
Sofonias profetaren liburutik *(So 3, 14-18)*
Egin kantu, Sion hiri! Egin poz-irrintzi, Israel!
Poztu, Jerusalem, alaitu bihotz-bihotzez!
Alde batera utzi baitu Jaunak zure aurkako epaia,
uxatu ditu zure etsaiak.
Jauna, Israelgo erregea, zurekin dago:
ez zara gehiago ezeren beldur izango.
Egun hartan, honela esango zaio Jerusalemi:
«Ez izan beldurrik, Sion, ez egon bihotz-eroria.
Zure Jainko Jauna zurekin dago, salbatzeko ahaltsu!
Pozik bai pozik dago zurekin.
Bere maitasunez biziberritzen zaitu.
Pozez jauzika eta kantari dago zuregatik».
Honela dio Jaunak:
«Nik bilduko ditut, Jerusalem, zuregandik urruti,
jairik gabe triste zeudenak».

Is 12

Israel herri,
handia Jauna
zure erdian.

Bai, Jainkoa dut salbatzaile!
Harengan dut uste on eta ez naiz beldur.
Jauna dut indar eta babes,
bera salbatzaile».

Pozik joango zarete zuek ere
salbamen-iturritik ura edatera.
«Goretsazue Jauna, dei egin berari,
iragarri haren egintzak herriei!
Ezagutarazi zeinen bikain den!

Ebanjelioa

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik *(Lk 1, 39-45)*
Handik egun batzuetara, Maria etxetik atera
eta Judeako mendialdeko hiri batera joan zen arin-arin,
eta, Zakariasen etxean sarturik, Elisabeti agur egin zion.
Mariaren agurra entzun bezain laster,
Elisabeti punpaka hasi zitzaion haurra sabelean.
Une berean, Espiritu Santuaz beterik gelditu zen Elisabet,
eta goraki esan zuen:
«Bedeinkatua zu emakume guztien artean
eta bedeinkatua zure sabeleko fruitua!
Nor naiz ni, nire Jaunaren ama ni ikustera etortzeko?
Zure agurra nire belarrietara iritsi orduko,
pozez punpaka hasi zait haurra sabelean.
Zorionekoa zu, Jaunak esan dizuna beteko dela sinetsi duzulako!»

LAUGARREN EGUNA

Lehen irakurgaia

Apokalipsi liburutik *(Apk 21, 1-5a)*

Zeru berria eta lur berria ikusi nituen, suntsituak baitziren lehenengo zerua eta lehenengo lurra, eta jadanik itsasorik ere ez zen. Hiri santua ikusi nuen, Jerusalem berria, zerutik, Jainkoarengandik, jaisten, emaztegaia bere senarrarentzat bezala apaindua. Eta ahots handia entzun nuen tronutik esaten: «Hona Jainkoak gizon-emakumeen artean jarri duen bizilekua; haiekin biziko da; haiek izango ditu bere herri, eta Jainkoa bera izango dute berekin. Haien begietako malkoak xukatuko ditu, eta ez da gehiago heriotzarik izango, ez dolurik, ez negarrik, ez nekerik, lehengo mundua betiko desagertua baita».

Eta tronuan eserita zegoenak esan zuen: «Hara, gauza guztiak berri egiten ditut».

Jdt 13

Zu zara gure
jatorriaren
harrotasun.

«Bedeinka zaitzala, ene alaba, goi-goiko Jainkoak
lurreko emakume guztien gainetik;
goretsia zeru-lurrak egin zituen Jainko Jauna».

«Jainkoaren indarraz oroituko den herriari
ez zaio inoiz ere ahaztuko
zuk Jainkoarengan izandako itxaropena».

Ebanjelioa

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik *(Jn 2, 1-11)*

Hiru egunera, ezteiak izan ziren Galileako Kanan, eta han zen Jesusen ama. Jesus eta beronen ikasleak ere gonbidatu zituzten ezteietara.

Eta ardoa amaitu baitzen, esan zion amak Jesusi:

–Ez dute ardorik.

Jesusek erantzun zion:
–Utz nazazu bakean, emakume. Oraino ez da etorri nire ordua.
Jesusen amak honela esan zien zerbitzariei:
«Egin horrek esango dizuena».
Baziren han harrizko sei ur-ontzi, juduek beren garbikuntzetarako erabili ohi zituztenak, ehunen bat litrokoa bakoitza.
Jesusek esan zien zerbitzariei:
–Bete ontziak urez.
Haiek goraino bete zituzten. Orduan, esan zien:
–Atera pixka bat eta eraman mahaizainari.
Hala egin zuten haiek.
Mahaizainak ardo bihurtutako ura dastatu zuen, nongoa zen jakin gabe; zerbitzariek, bai, bazekiten, beraiek atera baitzuten ura. Ardo berria dastatu zueneko, senarrari dei egin eta esan zion: «Jende guztiak ardorik onena atera ohi du lehenik eta, jendea aski edanda dagoenean, arruntagoa; zuk, berriz, orain arte gorde duzu ardorik onena».
Bere lehen mirarizko seinale hau Galileako Kanan egin zuen Jesusek; honela, bere Jainko-aintza agertu zuen, eta ikasleek sinetsi egin zuten harengan.

BOSGARREN EGUNA

Lehen irakurgaia
San Paulo apostoluak erromatarrei *(Erm 8, 28-30)*
Badakigu Jainkoak bera maite dutenen onerako bideratzen dituela gauza guztiak, bere aurre-erabakiz deitu dituenen onerako, alegia. Aurrez ezagutu zituenak, aukeratu ere egin zituen Jainkoak, bere Semearen irudiko izan zitezen, eta, horrela, Semea senide askoren artean lehenseme izan zedin. Aurrez aukeratu zituenak, deitu ere egin zituen; deituak, berriz, zuzentzat onartu zituen, eta zuzentzat onartuak aintzaz bete.

44. Salmoa

Adi, alaba,
ta begira,
makurtu zure
belarria.

Entzun, alaba! Zaude erne eta adi!
Ahaztu zeure herria eta aitaren etxea.
Zoraturik dago erregea zure edertasunaz.
Bera da zure jaun; egiozu agur.

Guztiz ospetsu dago printzesa,
urrez apain bordaturiko jantzitan.
Erregeagana daramate;
neskatxa gazteak, bere adiskideak, ondoren doazkio.

Ebanjelioa

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik *(Mt 5, 1-12)*

Jendetza ikusirik, Jesus mendira igo zen. Eseri eta ikasleak hurbildu zitzaizkion. Orduan, honela hasi zitzaien irakasten:

«Zorionekoak bihotzez behartsu direnak, haiek baitute Jainkoa errege.

«Zorionekoak negarrez daudenak, haiek baititu Jainkoak kontsolatuko.

«Zorionekoak bihotz gozokoak , haiek baitira jabetuko Jainkoak hitzemandako lurraz.

«Zorionekoak Jainkoaren nahia betetzeko gose-egarri direnak, haiek baititu Jainkoak aseko.

«Zorionekoak errukitsu direnak, haiek baititu Jainkoak erruki izango.

«Zorionekoak bihotz-garbiak, haiek baitute ikusiko Jainkoa.

«Zorionekoak bakegileak, haiek baititu Jainkoak seme-alabatzat hartuko.

«Zorionekoak Jainkoaren nahia betetzeagatik erasotuak, haiek baitute Jainkoa errege.

«Zorionekoak zuek, niregatik madarikatuko zaituztetenean, erasoka eta gezurrez gaizki-esaka erabiliko zaituztetenean. Poz zaitezte eta alaitu, handia izango baita zuen saria zeruan; zuen aurreko profetak ere halaxe erabili zituzten».

SEIGARREN EGUNA

Lehen irakurgaia
Ben Siraken liburutik *51, 13-18. 20-22)*
Oraindik gazte nintzelarik, bidaiatzen hasi aurretik,
bete-betean bilatu nuen jakinduria neure otoitzean.
Tenplu aurrean otoitz egin nuen hori lortzeko,
eta neure bizitzaren azkeneraino bilatuko dut.
Loratu zenean, hartaz poztu zen nire bihotza,
heltzen ari den mahats-mordoaz bezala.
Bide zuzenetik ibili dira nire oinak,
jakinduriaren arrastoari gaztarotik jarraituz.
Ahaleginik txikiena aski izan dut neureganatzeko
eta zer ikasi asko aurkitu izan dut neuretzat.
Berari esker egin dut nik aurrera;
horregatik, jakinduria ematen didanari aintza emango diot.
Praktikan jartzea erabaki dut,
ongiaz arduratu naiz eta ez dut damurik.

18. Salmoa

Jaungoiko Jauna,
zuk esana
espiritu ta
bizia da.

Jaunaren hitza ezin hobea: gizakia arnasberritzen du;
Jaunaren manamendua fidagarria: heldugabea zuhurrarazten du;
Jaunaren legeak zuzenak, bihotzaren pozgarri;
Jaunaren agindua distiratsua, begien argigarri.

Jaunaren promesa garbia: betiko dirau;
Jaunaren erabakiak egiazkoak: den-denak bidezkoak;
urrea baino desiragarriago, urre araztua baino ere bai;
eztia baino gozoago, ezti berria baino ere bai.

Bigarren irakurgaia

San Paulo apostoluak Filemoni *(Flm 9b-10. 12-17)*.

Nik, Paulok, jadanik zahartua eta orain, gainera, Kristo Jesusengatik kartzelan nagoen honek, mesede bat eskatu nahi dizut kartzelan sortu dudan nire seme Onesimorentzat. Hau, lehen, ez zenuen on ezertarako; orain, ordea, on bihurtu da, bai zuretzat eta bai niretzat. Berriro bidaltzen dizut bera, ene bihotz-bihotzeko dudan hau.

Neurekin eduki nahi nuen, zure ordez zerbitzari izan nezan, berri ona hots egiteagatik kartzelan nagoelarik. Hala ere, ez dut zure baimenik gabe ezer egin nahi izan, mesede hori gogoz egin dezazun eta ez behartuta.

Agian, horretarako alde egin zizun apur batez, gero betiko har zenezan, eta ez esklabo bezala, esklabo baino zerbait gehiago, anaia maite bezala baizik. Maite-maitea da niretzat, eta zenbatez maiteago ez ote da izango zuretzat, bai gizon eta bai fededun den aldetik !

Beraz, fedean adiskide banauzu, hartzazu Onesimo nerau bezala.

Ebanjelioa

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik *(Mt 12, 46-50)*

Oraindik Jesus jendeari hitz egiten ari zela, haren ama eta anai-arrebak azaldu ziren kanpoan, berarekin hitz egin nahian.

Batek esan zion:

–Adizu, ama eta anai-arrebak dituzu kanpoan, zurekin hitz egin nahian.

Jesusek, berriz, erantzun zion:

–Nor da nire ama eta zein nire anai-arrebak?

Eta, bere ikasleengana eskua luzatuz, esan zuen:

–Hauek ditut nik ama eta anai-arreba. Izan ere, zeruko nire Aitaren nahia egiten duena, horixe dut nik anaia, arreba eta ama.

ZAZPIGARREN EGUNA

Lehen irakurgaia

Hebertarrei egindako epistola *(Heb 5, 7-9)*

Kristok, mundu honetan bizi zelarik, deiadar handiz eta negar-malkoz egin zion otoitz eta erregu heriotzatik libra zezakeen Jainkoari eta, esaneko izan zitzaiolako, Jainkoak aditu egin zion.

Eta, Semea izanik ere, oinazearen oinazez ikasi zuen obeditzen; horrela, bete-beteko izatera iritsi zelarik, betiko salbamenaren iturri bilakatu zen berari obeditzen dioten guztientzat.

115. Salmoa

Eskaintzen dizut,
Jaun handia,
gorespenezko
oparia.

Nola ordainduko diot Jaunari
egin didan on guztia?
Kopa altxatuko dut
salbamenagatik esker onez, Jaunari dei eginez.

Mingarri zaio Jaunari
bere fededunen heriotza.
Bai, zure zerbitzari naiz, Jauna, zure zerbitzari apal:
askatu dituzu nire lokarriak!

Ebanjelioa

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik *(Jn 19, 25-27)*

Jesusen gurutzearen ondoan zeuden haren ama, amaren ahizpa, Maria Kleofasen emaztea, eta Magdalako Maria. Jesusek, bere ama eta honen ondoan maite zuen ikaslea ikusirik, esan zion amari: «Emakume, horra hor zure semea». Gero, ikasleari esan zion: «Horra hor zure ama». Eta ordudanik ikasleak bere etxean hartu zuen.

ZORTZIGARREN EGUNA

Lehen irakurgaia
Abesti Ederrenaren liburutik *(Ab Ed 3, 1-4a)*.
Gauez, ohean, neure bihotzeko kutunaren bila nenbilen.
Bila ibili, bai, baina aurkitu, ez.
Jaiki eta hirian zehar abiatu nintzen,
kale eta plazetan zehar,
neure bihotzeko kutunaren bila.
Bila ibili, bai, baina aurkitu, ez.
Hirian zehar dabiltzan zaindariek aurkitu ninduten.
–Ikusi al duzue nire bihotzeko kutuna?– galdetu nien.

Haiengandik aldendu nintzeneko,
aurkitu nuen neure bihotzeko kutuna.
Gogor heldu nion, ez diot berriz jaregingo.

62. Salmoa

Egarriz noa,
deika noa,
noiz ikusiko,
noiz Jainkoa.

Jainko, ene Jainko, lehia biziz nabilkizu bila,
zure egarri da nire barrena,
zure irrika naizen guztia,
lur lehor, agor, urik gabea bezala.

Bizia baino ederrago zure maitasuna!
Nire ahoak ospatuko zaitu;
bai, bizitza guztian bedeinkatuko zaitut,
zuri dei eginez altxatuko eskuak.

Ebanjelioa

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik *(Jn 20, 11-18)*

Maria hilobi ondoan gelditu zen, kanpoan negarrez. Halako batean, oraindik ere negarrez, hilobirantz makurtu zen, eta bi aingeru ikusi zituen zuriz jantziak, Jesusen gorpua egon zen tokian eserita, bata burualdean eta bestea oinetan. Aingeruek esan zioten:

–Emakume, zergatik ari zara negarrez?

Hark erantzun zien:

–Nire Jauna eraman dute, eta ez dakit non ipini duten.

Berehala, atzera begiratu eta Jesus ikusi zuen zutik, baina ez zen konturatu Jesus zela. Jesusek esan zion:

–Emakume, zergatik ari zara negarrez? Noren bila zabiltza?

Hark, baratzezaina zelakoan, esan zion:

–Jauna, zuk eraman baldin baduzu, esadazu non ipini duzun, eta neuk jasoko dut.

Jesusek esan zion: –Maria!

Honek, hurbilduz, esan zion hebreeraz: –Maisu!

Jesusek esan zion:

–Utz nazazu , oraindik ez bainaiz igo Aitarengana. Ea, zoaz nire senideengana eta esaiezu neure eta zuen Aitarengana noala, neure eta zuen Jainkoarengana.

Magdalako Mariak joan eta ikasleei berri hau eman zien: «Jauna ikusi dut». Eta hark esana kontatu zien.

BEDERATZIGARREN EGUNA

Lehen irakurgaia

Apostoluen Eginen liburutik *(Ap Eg 1, 12-14; 2, 1-4)*

Orduan, apostoluak Jerusalemera itzuli ziren Oliamenditik. Etxeraturik, bizi zireneko goiko gelara igo ziren. Hona zein ziren: Pedro eta Joan, Santiago eta Andres, Felipe eta Tomas, Bartolome eta Mateo, Santiago Alfeorena, Simon Zelote eta Judas Santiagorena. Guztiok, emakume batzuekin eta Jesusen ama Maria eta anai-arrebekin, bihotz batez otoitzari emanak bizi ziren.

Mendekoste-eguna iritsi zenean, toki berean bildurik zeuden guztiak. Bat-batean, haize-boladarena bezalako burrunba etorri zen zerutik eta beraiek zeuden etxe guztian durundi egin zuen. Orduan, suzko mihiak bezalako batzuk ikusi zituzten, bakoitzaren gainean bana kokatzen. Denak Espiritu Santuaz bete ziren eta hizkuntza arrotzez hitz egiten hasi, bakoitza Espirituak eragiten zion eran.

86. Salmoa

Zuri gorespen,
zuri kantu,
Jaungoikoaren
hiri santu!

Oi zu, mendi santuaren gainean
Jaunak sendo oinarritua!
Sion hiri, Jaunak zu maiteago
Israelgo herri guztiak baino.

Bai ospetsua, Jainkoaren hiri,
Jaunak zutaz dioena:
«Bai batak, bai besteak zeu zaitu sorleku!
Goi-goikoak tinko ezarri zaitu!»

Ebanjelioa

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik *(Jn 20, 19-23)*

Asteko lehen egun hartan bertan, arratsean, ikasleak etxe batean bildurik zeuden; judu-agintarien beldurrez, ateak itxirik zeuzkaten. Sartu zen Jesus eta, erdian jarririk, agurtu zituen esanez: «Bakea zuei». Gero, eskuak eta saihetsa erakutsi zizkien. Pozez bete ziren ikasleak Jauna ikustean.

Jesusek berriro esan zien: «Bakea zuei. Aitak ni bidali nauen bezala, nik zuek bidaltzen zaituztet». Eta haien gainera arnasa botaz, esan zien: «Hartzazue Espiritu Santua. Zuek bekatuak barkatzen dizkiezuenei barkatu egingo dizkie Jainkoak ere; zuek barkamena ukatzen diezuenei, ukatu egingo die».



Maria, Hitzaren ikasle eta testigu

AURKIBIDEA

Eguneroko gaiak *5*

Kontutan hartzekoak *7*

Lehenengo eguna *9*
Gaia: NAZARETEN HASI ZEN MISTERIOA
Irakurgaiak: Is 7, 10-14; Lk 1, 26-33
Meza: Maria Birjina, Jaunaren adierazpenean *(Itzulpen pribatua)*

Bigarren eguna *15*
Gaia: BELENEN HITZA HARAGI EGIN ZEN
Irakurgaiak: Za 2, 10-13; Lk 2, 1-7
Meza: Santa Maria, Jainkoaren Ama *(Itzulpen pribatua)*

Hirugarren eguna *21*
Gaia: AIN-KARIM-EN JAINKOAK SALTO EGIN ZUEN
Irakurgaiak: So 3, 14-18; Lk 1, 39-45
Meza: Maria Birjina dohatsuaren bisitaldia *(Itzulpen pribatua)*

Laugarren eguna *27*
Gaia: KANAN HITZA ARDO EGIN ZEN
Irakurgaiak: Apk 21, 1-5a; Jn 2, 1-11
Meza: Kanako Maria Birjina *(Itzulpen pribatua)*

Bosgarren eguna *33*
Gaia: MENDIAN HITZA ZORION EGIN ZEN
Irakurgaiak: Erm 8, 28-30; Mt 5, 1-12
Meza: Maria Birjina, gure pozaren eragilea *(Itzulpen pribatua)*

Seigarren eguna *39*
Gaia: BIDEAN HITZA BIHOTZEAN
Irakurgaiak: Jak 9, 13-19; Flm 9b-10. 12-17; Mt 12, 46-50
Meza: Santa Maria, Jaunaren ikaslea *(Itzulpen pribatua)*

Zazpigarren eguna *45*
Gaia: GOLGOTAN HITZA MAITASUN BETE
Irakurgaiak: Eb 5, 7-9; Jn 19, 25-27
Meza: Maria Birjina, Jaunaren gurutzearen ondoan (II) *(Itzulpen pribatua)*

Zortzigarren eguna *51*
Gaia: PAZKO-BARATZEAN HITZA BIZI BERRI
Irakurgaiak: Ab Ed 3, 1-4a; Jn 20, 1. 11-18
Meza: Maria Birjina, Jaunaren piztueran *(Itzulpen pribatua)*

Bederatzigarren eguna *57*
Gaia: MENDEKOSTEKO AFALTOKIAN HITZA MISIO
Irakurgaiak: ApEg 1, 12-14; 2, 1-4; Jn 20, 19-23
Meza: Afaltokiko Maria Birjina *(Itzulpen pribatua)*